




ZERAINGO

2017

URTEKARIA



Non duzu gogoak?

Buruan darabiltzuna
edozer izanda ere,
kontsulta ezazu Kutxabanken.
Behar duzunerako
mailegu pertsonalak.





2017. urteak berarekin geure herriko urtekariaren 30. alea ekarri digu, denon pozerako.

Dudarik gabe harro egoteko modukoa da urtero urtero, hogeita hamar urtez etenik gabe, urtekaria egin izana. Eta are gehiago, urtero urtero urtekaria herritarren artean egina izan denean.

1988tik 30 urtekari egin ditugu zeraindarrok; 30 liburuxka horietan Zeraingo azken hiru hamarkadetako historia bildu dugu. Geure historia, geuk idatzia.

Lehen urtekaria 18 lagunen artean egina izan zen (10 emakume eta 8 gizon). Ordutik geroztik datu hori handituz joan da 184ra iritsi arte. Datua ederra da, 91 emakumezko eta 93 gizonezko, guztira 184.

30. urtekari honen sarrera erabili nahi dugu urtekaria egiteko kazetari lanetan ibilitako herri kazetari guztiei. Pertsona horiei guztiei, ZUEI, ZORIONAK ETA ESKERRIK BEROENAK HEMENDIK.

1988ko urtekarian argi eta garbi adierazita dago zergatik ekin zitzaion lan berri honi:

“Herri bateko historia idatziz garatzeak garrantzi handia du. Idatzita dagoena betirako geratzen baita, eta ahoz edo entzumenez mugitzen den historia berriz, belaunaldiz belaunaldi aldatzen eta galtzen joaten da. Herri bat bizirik dagoela ez da nabaritzen afari eta zarartetan bakarrik; gure iritziz hori dena beharrezkoa da, baina herrietan gertatzen dira beste zenbait ekintza kultural, kirolezkoak eta abar eta hori dena jendeari jakinaraztea da aldizkari honen arrazoirik lehenetariko bat”.

Etenik gabe, pausoz pauso, urtez urte segida izan du egitasmo honek eta beste hogeita hamar urtez ere segida izan dezan nahiko genuke zeraindarrok. Hala izan dadila!!

Aurtengo urtekarian ohikoez gain, azken 30 urteetan herriak izan duen garapena eta historia laburbiltzeko ariketa aurkituko duzu, Zeraingo azken 30 urteak, artikuluan.

Azken bi urteetan bezala, ale hau Zeraingo etxe orotan jasoko da, eta urtean zehar eskuragarri izango da udalean eta salgai herriko bi tabernetan.

Ale honen erredakzioan 6 lagunek (3 emakumezko eta 3 gizonezko) parte hartu dugu, denontzat zorionak eta eskerrik beroenak. Segi bizkor!!

Justizia eta osasuna urte berrian denontzat. **URTE BERRI ON!!!**

BABESLEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia

Elkarriketa

EUSKERA IKASLEAK: Kath, Xabi, Pedro eta Belen	6
---	---

Gure gaia

ZERAINGO AZKEN 30 URTE	9
URTEKARIAREN BILAKAERA	18
URTEKARIA AUZOLAREN EMAITZA	21
AZKEN 30 URTETAN ZERAINGO URTEKARIA EGITEKO PARTE HARTU ZUTEN GUZTIAK	22

Urteko ekintzak

EKINTZAK ETA AZKEN URTETAKO HOBETUNTZAK, AIPAGARRIAK	24
HERRI ESKOLA	43
JAIOZAK, HERIOZAK ETA BIZTANLERIA	43
EUSKERAREN ERABILERA ETA KALE NEURKETAK ZERAINEN	44
HERRIKO IZENAREN KARTEALA	45

Gabonak

2017	46
------	----

Kolaborazioak

ZERAINGOAUTOPISTA ELEKTRIKORIK EZ ALTA TENTSIOAREN AURKAKO TALDEA	55
2017-2018 IKASTURTEA BASARTE GURASO ELKARTEAN	56
ZERAINGO GURE ESKU DAGO	58
1988KO URTEKARIKO IDAZLEEN LANAK	60

Gazteak sortzaile

ENARA AIZPEOLEA GEREÑU	61
ENERITZ AIZPEOLEA GEREÑU	61
AIZPEA ELORTZA ELORTZA	63
IRATI EGUREN RETOLAZA	63
LUR ELORTZA ALTUNA	64
UXUE SAEZ DE EGILAZ	64

EGILEA

Oa Kultur Elkartea
Urtekariko lan taldea

AZALA

Aroa Saez de Egilazek egina da,
urtekariko azalaren leihaketako
irabazlea.

MAKETAZIOA ETA INPRIMAKETA

Antza komunikazio grafikoa

LEGE GORDAILUA

SS-724-1996



EUSKARA IKASLEAK: Kath, Xabi, Pedro eta Belen

Aurten, urte batzuk eta gero, euskara eskolak klaseak berriro hasi dira herrian. Zeraindar batzuk interesa adierazi dute eta horren ondorioz, herri bizitza batzordetik, euskara eskolak klaseak eskaintzea erabaki da gainerako ikastaroekin batera. AEK-rekin harremanetan jarri eta ideia ona iruditu zitzaenez, lau ikasleko taldetxo bat sortu da.

Dagoeneko hasi dira klaseetan astelehen, asteazken eta ostiraletan herrian bertan. Karmele irakaslearen arabera oso talde motibatua da, ikasteko gogo askorekin eta euskal kulturaren barneratzeko irrikatan. Kurtso osoa udalak finantzatzen du eta beste norbait animatzen bada, irakasleak eta gainerako ikasleek pozik hartuko dute Kath eta Xabi.

Kath artisaua da eta Javier taberna bateko langilea, "Xabi" tabernan horrela deitu eta gustatu zitzaionetik bikote dira eta beraien seme Unai, hilabete eta erdiko Zeraindarra, klaseko ikaslerik gazteena da. Albaceteakoak jatorriz, bertan bizitzeko zailtasun handiak kontuan hartuta, bizitzeko beste leku baten bila hasi ziren. Bertako kulturak, hizkuntzak, jendeak eta paisaiak erakarrita etorri ziren Euskal Herrira. Azpeitia eta Amezketa bizi eta gero, 2017an iritsi ziren Zeraina.

Pedro Olaberriari jaiotako Madrildarra orain dela urte gutxi lanagatik Euskal Herrira bueltatu da. Zeraina apirilean iritsi zen, aurretik Ordizian eta Beasainen bizi eta gero. Beti egon izan da Euskal Herriatik gertu, familia Nafartarra baitu. Momentu honetan jubilazioaren zain dago; bakarrik dago herrian, bere familia Madrident geratu baita.

Belen Madrilgoa da, baina Marbellan bizi izan da azken lau urteetan. Arte Eszenikoen Kultur Kudeaketa da bere ogibi-dea, baina azken urteetan yoga klaseak ematen aritu da, eta horrek bere alabarekin denbora gehiago egotea ahalbidetu dio. Uda pasatzera etorri zen, bere bikotearen, Iñaki, familiako negozioan laguntzeko. Tolosan jatetxe bat daukate. Zerain asko gustatu zitzaien eta denbora gehiago geratzeko pentsatu zuten. Batez ere, eskolak duen funtzionamendua, adinaren arteko banaketa txikia izatea, denek denak ezagutzeko, denak batera ibiltzea... Bere alaba Lu Zeraingo eskolan da bil ikasturte honetatik.

Beraiekin hitz egin dugu:

ZERGATIK AUKERATU ZENUTEN ZERAIN BIZITZEKO?

Pedro: herri handiagotan bizi eta gero, lekua ikustera etorri nintzenean asko gustatu zitzaidan eta geratzea erabaki nuen. Nire etxetik ikusten dudana paisaia ederra da eta pilak kargatzen dizkit. Paseatzera irteteko aukera, Segura edo Mutiloara jaitsi, oso ondo dago. Nahiz eta herri txikia izan zerbitzu asko ditu eta niretzako nahikoa da.

Kath eta Xabi: gu gelditzeko ideiarekin etorri ginen. Zeraindik gehien gustatu zitzaiguna lekua eta estetika dira. Zerbitzuei dagokienez, herri txiki batentzat, hemen asko daude: medikua, haurtzaindegia, eskola, tabernak... Faltako lirateken gauzak herri txiki bat izatearen xarmaren parte dira. Herriko bizitza gustatzen zaigu eta herriko jendea ezagutzea. Naturan bizitzeko aukera oso garrantzitsua da guretzat.

Belen: asko gustatu zitzagun herria, ingurune ederra. Adin desberdinetako 23 umetako eskola txiki bat izateak suposatzen duen pribilegioa oso garrantzitsua da guretzat. Gainera lñakirekin lanarekin erabat bateragarria da.

ZERK BULTZATU ZAITUZTE EUSKARA IKASTERA?

Kath: beti gustatu izan zaidan hizkuntza da, bere originaltasuna eta ahoskeragatik, baita integrazioan sinisten dudalako, hau da, bizi zaren lekuko hizkuntza jakitea bertakoekin komunikatu ahal izateko. Unairengatik, gure semea, bere hizkuntza izango delako. Hizkuntzaren inguruan bizitza sortzen dela uste dut, mikromundu bat da eta jendea elkartzen du, eta ez dut inork bere hizkuntza aldatzea behartu nahi nirekin hitz egiteko.

Xabi: euskara ez badakizu Euskal Herriko zati bat galtzen duzu, integratzeko pausu bat faltako zaizu nahiz eta jendeak gaztelaniaz zurekin komunikatzeko arazorik ez izan. Hitz egiteko saia-kera egin nahi dut, gaizki sentitzen naiz euskaraz ezin komunikatuta. Diktadura garaian zehar jasan zuen debekuak herri honen identitatea mugatu zuen eta horrek ere kuriositatea eta gertutasuna sortu zigun euskararekiko.

Pedro: heldu nintzenetik planteatu nuen euskara ikastea, baina txandaka lan egiteak zailtasun bat suposatzen dit klaseetara jo-



ateko. Zerainean euskara ikastea proposatu zidatenean, bateragarria izango zela pentsatu nuen eta horregatik animatu nintzen. Ikastea, ezagutzea eta komunikatzea gustatzen zait. Gainera, nire erro nafarretan daukat euskara. Zeraingo festetan pixka bat lekuz kanpo sentitu nintzen denek euskaraz hitz egingen zutelako eta ez nuelako inork bere hizkuntza aldatzerik nahi nirekin hitz egiteko.

Belen: uste dugu integrazioarako, hau da, Zerainean bizitzeko eta komunikatzeko beharrezkoa dela.



Tellerine Baserria

Nekazalturismoa

Jose Migel Arrondo Irastorza

Aizpe auzoa

20214 Zerain

Tel: 943 582 031

NOLA ANIMATUKO ZENUKE EUSKERA EZ DAKIEN BAT EUSKERA IKASTERA?

Kath: zuk ikasteko dituzun arrazoiak beraiei azalduz, hizkuntzak inguruan dakarren guztia erakutsiz. Gainera originala eta polita iruditzen zait.

Xabi: ez dakigu oso ondo nondik datorren euskara eta hori oso polita da. Alde batetik, aukera gehiago izan ditzakezu hemen bizi bazara. Bestetik, maila kulturean herriarekin erabateko lotura du. Hala ere, esfortzu eta interes pixka bat behar dira.

Pedro: Kath-ek dioen bezala: “sobera originala da euskara”. Ddak dituenari animatu diezaiokezu ikastera, baina badago ikasi nahi ez duen jendea, oso zaila egiten zaielako edo ez direlako luzerako geldituko. Interesa eta esfortzua beharrezkoak dira.

Belen: hemengo kultura ezagutzeko modurik onena delako. Hemengo ohiturak, pentsamendua... ezagutzeko zubi bat izan daiteke. Hemengo jendea nolakoa den ulertarazten dizu.

EZAGUTZEN DITUZU XAGUARTEA, URTEKARIA ETA EUSKARAREN EGUNA?

Pedro: ezagutzen ditut baina ez ditut irakurri, nahiz eta saiatu naizen zerbait ulertzen. Espero dut gero eta gehiago ulertzea.

Kath: errola egitera etorri ginenean ikusi genituen lehen aldiz eta irakurtzerakoan, eta umeen argazkiak ikustean, aurreko ur-

tean jaiotako haurrak zirela suposatu genuen eta asko gustatu zitzaigun.

Xabi: feria ekologikoan ezagutu genituen.

Belen: euskararen eguna ezagutzen genuen baina aldizkariak ez.

IKASTAROAREN BALORAZIOA.

Pedro: klase pertsonalizatuak dira, metodologia egokia iruditzen zait, irakaslea ere bai, eta gustura nago. Klaseak galtzen badiut apunteak eramaten ditut etxean lantzeko eta ez atzean geratzeko. Espero dut hurrengo festetarako euskara gehiago jakitea eta jendearekin trebatzeko aukera izango dela trago batzuk hartzen.

Kath: flexiblea eta pertsonalizatua, gustura nabil.

Xabi: orduz ondo dago, denbora gehiago izango bagenu zaila izango litzateke eguneroko gauzeekin uztartzea. Irakaslea oso ona da eta ez nekatzeko ematen dizkigun mezuak beharrezkoak dira eta asko laguntzen digute.

Belen: oso pozik nago. Egia da hizkuntzaren zailtasuna nabaria dela, baina oso ondo pasatzen dugu. Karmele, irakaslea, oso dinamikoa da eta gauza garrantzitsuak kontatzen dizkigu. Ditugun orduekin ez digu askorako ematen eta orduz kanpo zerbait landu behar izaten dugu, baina oso pozik egiten dut.

GALDERAK MOTZAK

	KATH	XABI	PEDRO	BELEN
Liburu bat	Albaitaritzako edozein liburu teoriko	“La torre oscura” Stephen King	El Quijote	“Mi bebe lo entiende todo” Aletha J. Solter
Musika talde bat	K-POP musika	Zenobia	Bruce Springsteen	Bell & Sebastian
Pelikula bat	Los niños lobo	La princesa Mononoke	Oh Brother	Los 400 golpes
Jaki bat	Edozein jaki etxean egindakoa bada.	Pizza	Arrautzak patatakin	Eltzekoa
Kolore bat	Beltza	Berdea	Urdina	Berdea
Amets bat	Etxe bat izatea, lursail txiki bat duena eta horrela jasotzen ditugun animalientzako santutegi txiki bat izatea	Etxe bat izatea, lursail txiki bat duena eta horrela jasotzen ditugun animalientzako santutegi txiki bat izatea	Madridera laister itzultzea senideekin	Amatasunean zehar laguntzeko aspaldian buruan dudan proiektu bat egi bihurtzea.
Animali bat	Katua	Katua eta txakurra	Tigrea	Astoa
Munduko leku bat	Filipinak	Holanda	Mexiko	Maroko

ZERAINGO AZKEN 30 URTEAK

Urtekariak utzitakoa



XX. mende bukaerak eta XXI. mende hasierak mundu mailan aldaketa handiak ekarri dizkigu. Aldaketa horiek, nola ez, eragina izan dute norbanakoen bizitzan. Duela 30 urte, internet eta mugikorrik gabe bizi ginen, mugikortasuna beste modu batean ulertzen genuen eta lan eta bizi inguruan egiten genuen.

Denak aldatu gara 30 urtetan, eta gurekin batera gure herria ere aldatu da. Baina zer eta nola aldatu gara? Zer aldatu da gehien? Herriaren itxura? Herritarrak? Dauzkagun zerbitzuak? Dauzkagun ohitura eta jaiak?

Urtekariak aztertu ditugu eta gure herriak egin duen ibilbidearen sintesi ariketa egitera ausartu gara. Horra hor emaitza:

DEMOGRAFIA

Hazi al gara herri bezala? Gehiago edo gutxiago al gara?



235 lagun ginen 1987an, eta 30 urte beranduago, 2017an 251 gara. 16 herritar gehiago gara, beraz. Biztanleak galtzeko joera eten eta biztanle batzuk gehiago izatea lortu dugu.

ZERBITZUEN ESKURAGARRITASUNA

Zerbitzuak mantendu edo zabaldu al ditugu? Zein zerbitzu genuen eta daukagu orain?

► **Ura:** duela 30 urte Gipuzkoako Ur Partzuergorik ez zen eta herrian udan ur arazoak izaten ziren. Mutiloako uretik hartzea izaten zen irtenbidea baina uraren kalitatea ez zen ona, zikina etortzen zelako. Ordutik gaur egunera gauzak asko aldatu dira. Gipuzkoako ur Partzuergoak kudeatzen du gai hau eta edaten dugun ura Arriarango urtegitik dator. Urte osoan dugu behar adinako ur horniketa.

► **Hondakinak:** etxeetako hondakinak astean behin biltzen ziren duela 30 urte. Ez zegoen kontainer bidez bilketarik eta Sasieta Mankomunitatea sortzeke zegoen. Beasaingo hondakinen zabortegia ere beranduago egin zen, artean ez zen existitzen. Asmoa zen mankomunitatea sortzea ondoren zabortegia egiteko. Mende berriarekin ingurumenaren aldeko sentsibilizazioa eta jarrera handitu egin dira eta horren ondorio 2013an hondakinak biltzeko sistema aldatu zen. Azken urteetan lan handia egin da hondakinak biltzeko moduak hobetzen hondakinen birziklapena handitzeko helburuarekin. Gaur egun bi bilketa toki bat dago kaskoan eta bana bi auzo nagusietan, Aizpea eta Barbarin.

► **Posta:** posta zerbitzua ere ez zen ona eta ez zegoen etxez etxeko buzoirik. Gero buzoiak jarri eta herritarrei esleitu zitzaizkion. Gaur egun postaria egunero dator.

► **Denda:** Herreronen zegoen herriko denda eta telefonoa ere, baina gero itxi egin zuten.

► **Osasuna:** Segurako zentroa oraindik ez zen martxan duela 30 urte eta Mutiloako medikuaren plaza galduko ote zen beldurra

bazegoen dagoeneko. Udalari ez zitzaion egoki iruditzen mediku batek hiru herritan lan egin behar izatea baserrien sakabaketa-erengatik.

Anbulatorioa garai bateko eskola etxean zegoen. 1995ean Kultur Etxera (liburutegia zegoen tokira) pasatu zen eta honela zerbitzu gehienak eraikin berean kokatuta geratu ziren.

1998ko abuztuan Juan Karlos Martinez Beasainen bizi den le-gazpiarra etorri zen mediku lanak egitera herrira eta 2015era arte egon zen gure artean, orduan erretiratu baitzen. 2016ko ur-tarrilean Alazne Saizar medikua hasi zen gure herrian lanean. Urte horretan bertan medikuaren kontsulta tokiz aldatu eta berritu egin da indarrean dauden irisgarritasun arauak bete-tzeko helburuarekin.

► **Etxez etxeko laguntza:** bi emakume arduratzen ziren lau etxeetan zerbitzu hau eskaintzeaz. Udalak finantzaketa ar-a-zoak zituen zerbitzu horri erantzun ahal izateko diru laguntza gutxi zeudelako. Gaur egun ez dago martxan zerbitzu hori.

► **Hezkuntza:** herri eskola duela 35 urte (1983) berriro zabaldu zen etenaldi baten ondoren. Eskola berriro zabaltzea oso garrantzitsua izan zen herriaren bizitzarako. 1988an Zerainen 17 urtez irakasle egondako Maria Teresa Luengori omenaldia eskaini zitzaion.

2001ean jangela zerbitzua jarri zuten martxan gurasoek.

2003an haurreskola zabaldu zen Zerainen, Haurreskola Par-tzuergoaren bidez. 2008an eskolak 25 urte bete zituen eta bi fes-tekin ospatu zen, bata Gipuzkoarrei irekia, Gipuzkoako eskola txikien festa: hiru mila lagun inguru etorri zen herrira eta oso festa polita izan zen. Bestea, herri mailakoa herritarrentzat.

2010ean Zerainen 27 urtez irakasle egondako Kontxi Errastiri erretiratu zenean omenaldia eskaini zitzaion uztailaren 23an.

2012an eskolako baratza ekologikoa egin zen.

Eskolak gaur egun 22 haur dabilta, bost irakasleen ardura-pean. Jangela zerbitzua ere martxan da.

AUZOAK

Zerain sakabanatutako herria zen duela 30 urte, urte gutxi au-rretik hasi ziren herri kaskoa eta elkarbizitza indartzeko dinamika eta proiektuak.

Oso ondo berezita dauden 2 auzo ditu herriak: Barbari mendi eta Aizpea. Beste auzo batzuk ere bereizten dira, hala nola, Errekalde, Lasurtegi, Hirukate gain, Otatza, Koozmendi, eta be-heko auzoa.

Duela 30 urte Barbariko zazpi baserritan bizi zen jendea, gaur egun sei baserritan. Barbarin herriarekin lotzeko bidea izan zen garai hartan egindako lanik garrantzitsuenak. Bidea 1990eko udan amaitu zen bospasei urteko lanari bukaera emanez.

Goiko Aizpean ez zen inor bizi duela 30 urte eta beheko Aizpean hiru baserritan bizi ziren, nahiz eta 12 baserrietara ia egunero jo-aten ziren baratza eta animaliak zaintzera.

Aizpeako ur depositoa egiteko lanak ordukoak izan ziren.

Orotara Zerainen 30 baserritan bizi zen jendea, beste baserri askotan jenderik bizi ez bazen ere, animaliak eta baratzak zeuden eta egunero joaten ziren baserrira.

Zabalegi poligonoan Serfovan izeneko zerrategia zegoen eta 5 pertsonak egiten zuten lan bertan.

HIRIGINTZA

Urte batzuk lehenago egindako Gureako etxeek hirigintza ikuspegitik kritikak jaso zituzten neurritz egokiak izan arren, ordenatuegi, oso ilaretan zeudelako eta ordura arteko kaskoko paisaia aldatu zutelako, zelaia murriztuz. Den den, herriari eman zioten bizia inork ez zuen zalantzan jarri. Duela 30 urte etxe horien sarrera plazatik hobetzeko eta plaza bera txukuntzeko lanak (kioskoa kendu, Jauregi aurea itxuratu..) egiteko asmoa zegoen.

1988an herriko arau subsidiarioak landu ziren lehen aldiz, eta bertan arautu zen hurrengo urteetan egin ahal izango ziren 17 etxebizitzak. Horietako hamabi udalak erosi berri zuen lurretan egiteko eta beste bostak beste zenbait tokitan. Etxe horien helburua zen jendeak ez alde egin behar izatea etxeak egiteko lurrik ez zegoelako. Arau horiek 1989an onartu ziren eta argi mugatu zuten zein izango zen hiri lurra eta zein landa lurra.

Herri erditik pasatzen den bide nagusia duela 30 urtekoa da, baita Antxaputxuraino doan espaloia ere. Beranduago osatuko zen lan hau, 1996an, hain zuzen ere. Ordukoa dira Ostatu aurreko plazatxoa pozaderarekin, aparkalekua eta plaza eta aparkalekuaren artean aldatutako landareak. Udaletxe aurea ere txukundu zen espaloiz zabal batekin.

Barbarira joateko errepeidea 1988an hasi zen. Bide horrek aurrekontu handia izan zuen baina oso garrantzitsua zen bidea egitea Barbari Mendiko zeraindarrek kotxez Zeraina etorri ahal izateko. Ordura arte Zegamatik buelta eginez bakarrik etor zitezkeen eta hori dela eta joera gutxi zuten herrira. Beranduago egingo zen Mutiloa eta Zerain arteko bidea ere.

1988an inauguratu ziren herriarentzat oso garrantzitsuak izan diren San Blas basiliza berriro ondoren, eta 1984an egin ziren Kultur etxea eta pilotalekua ere.

Urte gutxi beranduago Zeraingo elizako koru azpia egokitu zen neguan meza garaian hotzik ez pasatzeko.

1993an haurrentzako parkea egin zen herri kaskoan.

1995ean berrikuntza lan batzuk egin ziren Kultur etxeko eraikinean: liburutegia bigarren solairura pasatu zen. Gela berri bat prestatu zen ikastaroak eta bestelakoak egiteko. Parrokiarentzat gela bat eta apaizarentzat etxebizitza prestatu ziren.

2002an plazara igotzeko eskailera berriak egin ziren. Eta ondoren, Ostatu tabernako komunak berriro ziren, 2003an.

2004ean kutzazain automatikoa jarri zen herrian, plazan hain zuzen ere. Maixune izeneko plazako etxea berriro zuen udalak. Lehengo paretak mantenduta teilatu berria jarri zitzaion. Behoko solairuan biltegia, lehen pisan haurrentzako jolas lekua



eta aterpea. Eta bigarrenean gaztetxoentzat txokoa. Haurrek eta gurasoek egin zituzten pintaketa lanak.

Legazpitik Segurara doan errepidea gure herritik pasatzen denean autoen abiadura mantsotzeko neurriak hartu zituen Foru Aldundiak 2005ean. Bidea gorria egin eta landareak jarri zituzten.

2006an Zerain eta Mutiloa lotzen dituen errepidea egin zen. Horrekin batera Antxaputxun errotonda egin zen.

2007an irisgarritasuna hobetzeko obrak eta egokitzapenak egin ziren plazan. Horrekin batera kanpoko errepidean espaloiak kendu ziren lehentasuna oinezkoiei emanez. Maixune atzeko eskailerak berritu ziren. Eta erreteila egin zen Kultur Etxeko teilatuan.

Urte horretan bertan udazkenean N-I errepidean panel berriak jarri zituzten lehen aldiz gure herriaren izenarekin.

2008an plazatik Antxaputxurako bide berria egin zen. Baserri zein auzoetarako seinaleak jarri ziren.

Lehengokoa zegoen tokian Goiaren eskultura berria jarri zen, Kultur Etxe aurrean. Eskultura berria Joxe Mari Telleriak egin zuen. Lehen zegoen harriko bustoa Mantxola baserri ondoan jarrita dago orduz geroztik.

2009an herriko saneamendu sarearen bigarren faseari ekin zitzaion.

Baita ere Kozmendi auzora joateko bide berria egin zen. Jolas parkeko zorua berritu zen; pinu azalaren ordezkortxoa jarri zen.

Urte honetan ere hainbat sondeo egin ziren Aizpe auzoan azken urteetan lur mugimenduekin izandako arazoei irtenbidea bilatzeko asmoz.

Ariztibarren eta Antxaputxu artean dagoen lur sailean kotxeak aparkatzeko tokia prestatu zen.

2010ean Kultur Etxea berritu zen gaur egun duen erabilera antzeko gune zabala eginez. Errementari baserria erosi zuen udalak GFaren laguntzarekin.

2012an herriko udaletxeak 300 urte bete zituen.

2012an Espainiako Gobernuak autopista elektriko bat egiteko asmoa zuela jakin eta gero, Goierriko plataforma sortu zen haren kontra egiteko. Mehatxu hau oraindik gure artean dago.

2014an Mandio tabernako terraza eraberritu zen. Baita ere plaza gainean aisialdiko gune bat egin zen. Bertan mahaia jarri ziren bazkaldu edo afari meriendak egin ahal izateko.

2016an herriko komun publikoak egin ziren plazan, eliz atarian hain zuzen ere. Plaza oinezkoentzat egokitu zen. Eliz atarian argiak eta itxiturak jarri ziren eta baita goiko plazan aparkamendua antolatu ere.

Segura-Zerain oinezko bidea egin da bide bazterretik oinez zebilen jendea segurtasun handiagorekin ibiltzeko.

2017an pilotalekuaren teilatua berritu da.



ALDABE ZERBITZU TURISTIKOAK

Zerain Paisaia Kulturala

- Informazio bulegoa
- Aterpetxea
- Ikastetxe eta familientzako egonaldiak eta udalekuak
- Tailerrak eta erakusketak
- Bisita gidatuak
 - Meategiak
 - Museoa
 - Zerrategia
 - etab.

www.aldabe.com

Tel: 943 801 505

turismobulegoa@zerain.com

MANDIO TABERNA

Tel: 943 801 705



ELKARBIZITZA, GIROA

Festak eta ohiturak mantendu edo berreskuratu al ditugu? Nola-koak ziren festak eta nolakoak dira orain?

Herriko festak beste herri txikietan bezala beherako joera hartuta zuten dagoeneko duela 30 urte. Apustu handia egiten zen herri mailan festetan, gaurko ia 3.000 €ko aurrekontuarekin.

Bi egunetan ospatzen ziren hasieran eta hirutan geroxeago: 14, 15 eta 16an. Herri afaria San Roke egunean bi bertsolarik alaituta egiten zen.

Ez da asko aldatu herriko festen egitaraua horrenbeste urtean: Zeraingo igoera bizikletaz eta haurrentzako krosa, trikitilari gazteen txapelketa, herri kirolak, haur jolasak,

1991n ospatu zen lehen aldiz danborrada festetan. Urte batzuk iraun zituen eta gero bertan behera geratu zen kostu handia eta atxikimendu txikia zuelako herritarren artean.

1995ean berreskuratu zen beste ohitura bat: udal ordezkariak meza nagusira joateko udaletxetik elizarainoko bidea txistu doinuekin egitea, hain zuzen ere.

1996an ospatu zen lehen aldiz txakolin dastaketa, Andra Mari egunean. Lehen horretan lau txakolingilek parte hartu zuten.

Kultur Etxea martxan zegoen 1986tik, hasi berria beraz, eta junta bat zuen inizatiba desberdinak martxan jartzeko eta larunbat eta igandetan liburutegia eta jolas tokia zabalik edukitzeko jendeak laguntzen zuen.

Olentzeroren etorrera abenduaren 24an 1987an ospatzen hasi zen. Gabon eskean hasi ziren herriko haurrak Aizpea eta Barbarira ere iritsi zirelarik.

Kultur astea, 1990ean ospatu zen lehen aldiz. Beste hainbeste jenderen artean Takolo, Pirritx eta Porrotx izan ziren herriko txikiekin eta Maixa eta Itziarrekin dantzaldia izan zen lehen edizio hartan.

Santa Ageda 1991n berreskuratu zen.



1992an omenaldi ederra egin zitzaien Ion Azpillaga eta Ion Lopategiri.

1995ean lehen aldiz ospatu zen Zerainen ezkontza zibil bat. Orduetik gaur arte 48 ezkontza egon dira herrian, horietatik 20 ezkontza zibilak izan dira. 2015ean ospatu zen sexu bereko lehen ezkontza, bi errusiarren artekoa.

1997ko ekainaren 24an Sanjoan sua piztu zen berriro Zeraingo plazan, 1972 urtetik ez zen surik piztu plazan eta ohitura berreskuratu zen. 1999ko Sanjoanetan lehen aldiz herriko haurrek dantza saioa egin zuten sua piztu aurretik. 2000ko Sanjoanetan haurrek eta gurasoek egin zuten dantza plazan bereziki egun horretarako prestatu zuten soka dantza dantzatu zuten inguratu ziren herritar eta bisitarien aurrean, baina ez zuen segidarik izan hurrengo urteetan.

1999ko abenduan OA Kultur Elkartea sortu zen.

2.000 urteko martxoan ospatu zen lehen aldiz zuhaitz eguna herrian protagonista nagusiak herriko eskolako haurrak izan ziren eta gurasoekin batera 5 arte landare aldatu zituzten plazan. Hurrengo urteetan ere izan zuen segida zuhaitz egunak.

2004ean lehen aldiz egin zen Mutiloara jaitziera San Pedro jaietako sagardo probara zeraindarrak elkarrekin joateko asmoz.

2005eko abenduaren 19an jaio zen zeraindarren aldizkaria, Xagu Artea.

2007ko martxoaren 24an pasatu zen lehen aldiz Korrika (15. Edizioa) Zeraindik goizeko 5:30ean, Mutiloatik gora.

2008an Gipuzkoako Eskola Txikien Festa ospatu zen Zerainen eskolaren XXV. Urteurrenarekin bat eginez.

2009an aspaldiko partez San Isidro ospatzeko herri afaria antolatzen.

Pirritx eta Porrotxekin eskola txikiei eta gure herriari buruzko pelikula egin genuen. Bideo honek gure herria ezagutarazi du Euskal Herrian zehar.

2011n Liztormendi elkarteak 50 urte bete zituen.

Liztormendi elkarteak (1961) ehiza, arrantza, txirrindularitza, bolatea eta horrelako ekintzak antolatu izan ditu bere sorreratik, esan daiteke inizatiba asko bertatik atera izan direla.

Duela 30 urte herriko frontoia egina zegoen baina bultzada bat behar zuen esku eta pala jokoan jende gutxi zebilela eta. Bola toki pribatua zen eta beharra ikusten zen bola toki publikoa izateko. Bolatea beheraka hasita zegoen baina txapeldunak irteten ziren bertatik. Batez ere gazteen artean galtzen hasia zen bolatarako zaletasuna. 2003an eraberritu zen herriko bolatokia eta ahal zen guztia herritarrek auzolanean eraikia izan zen. Urtero antolatu izan dira bola txapelketak eta zaletasunak segida izan du, azken urteetan emakumeen artean ere.

2012an Zeraingo Urtekariak 25 urte bete zituen.

2014an eus domeinua lortu zuen Zerainek.

2015ean Bihar biharkoak obra antzeztu zuten hainbat herritarrek Zeraingo elizan. Zerainek 400 urte bete zituen. UEMAn sartu zen Zerain, euskaraz bizi diren herrien topagunean.

2016an Gure esku Dagok antolatuta herri galdeketa egin zen.

Urriko Kultur Astea udaberriko Kulturaldian bihurtu da. Maia-tzean ospatzen da eta hilabete osoan zehar antolatzen dira kultur ekintzak. Ekintza desberdinen artean aipagarria da San Isidro baserriarren eguneko bazkaria, herriko produktuekin prestatzen dena.

Frontoian beste kirolak egin ahal izateko ekipamendua erosi da.

Liburutegia, eta beste bi gela prestatu dira ikasteko eta ikastaroak egiteko.

Aspaldiko partez euskara eskolak martxan dira herrian, etorri berriekin osatu den lehen mailako taldearekin.

BASERRIA, MENDIA, EHIZA

Partzonerian orain bezala duela 30 urte zailtasunak ziren nagusi. Garai hartan Partzoneriatik 400.000 eta 600.000 pezeta arteko diru sarrera izaten zuen Zeraingo Udalak. Urteak dira udalak Partzoneriatik ez duela diru ekarpenik jasotzen.

Partzoneria ehizarekin, egurrekin eta artzaintza eta abeltzaintzarekin finantzatzen zen. Ehizetik % 40a, egurretik ia % 60a eta ganaduarekin % 2a. Partzoneria osatzen duten herrietako herritar guztiek zuten gaur bezala eskubidea ganadua Partzoneriko lurretara igotzeko.

Herri lurrak antolatzeko ganadua zentsatu eta zenbat terreno utzi larretarako eta zenbat landatu erabakitzeko proiektua garai hartakoa da. Baita Oa mendiko larreak libre utzi edo errentan emateko erabakia.

Zerainen ehizan ibiltzeko ez zen inolako mugarik duela 30 urte eta asteburuetan kanpoko jende asko etortzen zen bertan ehizan ari zera. Geroztik herri kaskoan ehizan aritzea debekatu zen.

TURISMOA/TOKIKO GARAPENA

1988an kanpotik etortzen zirenentzat baziren gauza interesgarriak ikusteko, adibidez, kartzela, San Blas ermita eta Jauregia. Museoa egiteko asmoa bazen ordurako. 1992an turismoaren gaiari heltzen dio Udalak: Zerainen jendea bertan geratzeko zerbitzuak eskaintzeko apustua egin eta gero, irabaziak behar ziren zerbitzu guztiak mantentzeko eta hori dela eta, udala aukera berriak aztertzen hasi zen. Zerain betidanik baserritik bizi izan den herria zela jakitun, ez zela nahikoa eta beste sektore batzuetara jotzea erabaki zuen, hirugarren sektoreko turismora hain zuzen ere. Beti pentsatuz egingo zena herriaren onerako izango zela.

90. hamarkadaren hasieran Goierrin nagusi zen burdinaren industria behera zihoan, eta aisiari lotutako turismoa garatzen hasia zen. Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren turismo sailek eskaintza turistikoak kostatik barnealdera zabaltzeko aurreikuspenak zituzten. Testuinguru honetan udalak Zerainen zegoena aprobetxatuz turismo mailako eskaintza bat luzatzea erabaki zuen. Ezer egin aurretik oso garrantzitsua zen udalarentzat herriari plan hori interesatzen zitzaiola ziurtatzea. Eta era berean turismo kontrolatu bat garatzea eskuetatik alde ez egiteko beste tokietan pasatu zen bezala. Turismo plan hori herriaren nortasunarekin integratuta behar zuen, baserriko lanarekin osagarri. Suitza zen zeraindarren eredu momentu horretan, han gertatzen zen bezala, turismoarekin lotutako irabaziak gero baserri eta beste beharretan inbertitzea zen udalaren helburua.

1992an egindako eskaintza turistikoak herria bera jasotzen zuen, bere paisaiekin. Eskaintza horrek ondoko azpiegitura finkoa zuen: eliza, kartzela, ostatua, Larraondoko zerra, Oamendiko dolmenak, Jauregi.... Baina ordurako proiektu berriak zituen martxan udalak: baserrietako tresna zaharren museoa eta aterpetxea. Kanpin batean ere pentsatu zuten, baina azken hau ideia mailan geratu zen. Azpiegitura hauei alderdi dinamikoa gehitu zitzaion, Aranzadi zientzia elkartearen laguntzaz 4 ibilbide antolatu ziren. Tresnak katalogatzen hasi ziren etorkizunean erakusketa antolatzeko. Zerainen eguna pasatzeko eskaintza ere antolatzen ari ziren ikastetxei eta jubilatuei bereziki eskaintzeko. Pertsona bat kontratatu zen bisita horien kudeaketa egiteko eta taldeekin gida moduan ibiltzeko. Erakundeek interesa agertu zuten horrelako ekimenen aurrean eta udalaren nahia zen hainbat ideia gauzatzeko inizatiba pribatua bultzatzea.

Kartzela 1992an berriro zen Fernando Diaz Peralen laguntzarekin.

Petrikiloaren oroimenez eskultura bat jarri zen Liztormendi elkarretetik gertu urte horretan bertan, harriz egindako hezurrez osatutakoa, Tomax Ugartemendia eskultoreak egina.

Larraondoko zerra, XIX. mendekoa, basoetatik ateratako egurrak zerratzeko erabiltzen zena 30 urtez geldirik egon zen. Berriztatze lan batzuk egin eta gero ireki zen bertara bisitak egiteko aukera emanez.

Beraz, 1993an bi inaugurazio garrantzitsu izan ziren: Larraondoko zerrategia eta herriko pilotalekuan jarri zen erakusketa etnografiakoa. Herritarren, Aranzadiaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarik gabe ezinezkoa izango zen egindakoa egitea.

1994ean erakusketa ganbaran jarri eta museoa sortu zen Zerainen.

Horrekin batera Seguratik Zeraina datorren kaltetara garbitu zuten herriko gazteek Lizarrako laguntzaileekin batera.

Urte honetan aipatzen da lehen aldiz Zerain proiektua eta honek helburu bakarra zuen: biztanle kopuruari eutsi eta ahal bada handitu eta horretarako 3 alor lantzeko asmoa zegoen:

- Herritarren bizitza kalitatea hobetzea
- Herritar kontzientzia indartzea
- Etorkizun ekonomikoa garatzea.

Lehen bi arloak landuta zeuden ordurako, eskola eta Kultur Etxea antolatuta, bideak hobetuta, pilotalekua eginda... bi arlo hauekin jarraitzeko asmoa bai, baina hirugarrenari bultzadarik handiena emanez. Azken arlo hori garatzeko hiru ardatz ikusten ziren orduan: baserria, kultura turismoa eta natura turismoa.

1995ean inauguratu zen Oatza sagardotegia, 100 pertsonenentzako tokiarekin.

1995ean urrats handi bat eman zuen udalak Zerain proiektuarekin jarraitzeko: Mandioa ireki zuen. Alde batetik eta orduan garrantzitsuena zena herriko produktuen salmentarako denda: indabak, intxaurrak, urrak, gazta, sagarrak eta abar saltzeko baserria indartzeko helburuarekin. Inguruko herrietako gauzak ere salgai jarri ziren: Segurako eztia, Zegamako zeramika, Ormaiztegiko ogia eta abar. 1996an Goierriko artisauen produktuak gehitu zitzaizkion helburu honekin: artisau lanak bildu, erakutsi eta saldu. Herritarrek zituzten beharretarako denda ere bertan zegoen. Baita osagai bezala plazari bizitasuna emateko taberna ere. Mandio denda eta tabernak 23 urte bete ditu udazken honetan.

Horrez gain, Zerain proiektua eta bertako parke kulturala eza-gutzera emateko hainbat feriatara joaten ziren zeraindarrak:

1995ean: Ordiziako feria berezira, Bilbon Itsaslurrera eta Donostian ospatu zen Natur Expora ere.

1996an: Ordiziako feria berezira, Altsasu, ezpeleta, Segurako Iparra Hegoa, Madrilen Fiturrera eta Gasteizko II. Azoka gastronomikora.

1996an turismoa sustatzeko abiatutako bidean beste urrats bat eman zuen diaporama osatuz eta ikusgai jarritz. 500 argazkiz osatuta, 13 minututan gure paisaia, ohiturak, kultura eta herriko jendea erakusteko. Gidoia Koldo Izagirrek idatzi eta musika Koldo Ametzagak jarri zuen. Argazkilaria Kepa Gonzalez izan zen. Aho-tsen grabaketa euskarazko bertsioan herriko jendeak egin zuen bertako hizkera erabiliz.

Azoka ekologikoa lehen aldiz antolatu zen 1996an, Biolurrekin batera, eta Gipuzkoan egin zen lehen nekazaritza produktu biologikoen azoka izan zen. Lehen urte horretan guztira 35 postu jarri ziren plazan. Ordutik urtero urtero hutsik egin gabe ospatu da azoka Zerainen eta azoka ekologikoen artean klasiko bat dela esan daiteke.





1996an inauguratu zen Tellerine nekazalturismoa. Joxe Miel Arrondok erosi eta berritze lan bikaina egin ondoren Zeraingo mota honetako lehen establezimendua martxan jarri zuen.

Luma Gorrik hiltegia eraiki eta ireki zuen urte horretan Zerainen. Eta 1997an eta 1998an oilaskoen eguna antolatu zen herrian.

Zerralan zerrategia inauguratu zen Zabalegi poligonoan. Zerrategi hau Goimenen ekimenez sortu zen eta Idiazabal, Segura, Zegama, Mutiloa eta Zeraingo Udalekin batera. Bost herrietako ehun baserritar dira elkartea osatu zutenak.

1997an Fundazioak garatu zituen proiektu nagusiak hauek izan ziren: aterpetxea, mermeladen ekoizpen zentroa, Aizpeko meategietan garbiketa lanak eta segurtasun neurriak ezartzeko proiektua.

1998an Nazioarteko Jardunaldiak ospatu ziren Zeraingo elizan, Ondarea eta turismoaren garrantzia landa garapenean izenburuarekin. 1998an herrira etorritako bisitariak 19.459 izan ziren eta 1999an 18.502.

Urte horretan hasi zen Burdinaren bideak izeneko ekimena, horren bidez Legazpiko Lenbur Fundazioak, Ormaiztegiko Udalak eta Zerain Dezagun Fundazioak bultzatuta burniari lotutako ibilbide bat antolatu zuten.

2004ean Aizpeko minetako Aizpita etxea eraberritu zen. Ia erorian zegoen etxe zaharrari hormak sendotu eta teilatua berritu zitzaion. Prest geratu zen etorkizunean mehatzei buruzko erakusketa jasotzeko.

2005ean mundu mailako topaketak izan ziren Zerainen parte hartzearen inguruan. 19 herrialde desberdinetako 27 ordezkariak parte hartu zuten bertan. San Blas ermitan egin ziren saio gehienak eta herritarrekin batera egindako herri afari batekin amaitu ziren.

2006an mehatz ingurua garbitu eta txukundu zen. Zuhaitz berriak landatu ziren, ibilbideak antolatu ziren informazio panelekin. Burdinaren mendia martxan zen.

2009ko martxoaren 28an Polborina galeria inauguratu zen herritarren artean.

2014ean XX. Azoka ekologikoa ospatu zen. Eta Aldabe kooperatibak 15 urte bete zituen.

2015ean lur bankuaren proiektua martxan jarri zen.



Urte horretan bertan aterpetxea Europako arau berriei homologatzeko egin beharreko egokitzapenak egin ziren.

2015 eta 2017 artean lur mugen eguneraketa egin da, lehenik lur publikoena eta ondoren pribatuena.

UDALA

Antolaketa, erabakiak, Udala berdin kudeatzen da orain eta lehen?

Udalaren sarrera nagusiak orain dela 30 urte gaur egun bezala Al-dunditik etorritakoak ziren, bestelakoak, zergetatik jasotakoak kasu, txikiak ziren. 1988an 11 miloi pezeta inguruko aurrekontua zuen, gaur eguneko 70.000 € ra ez zen iristen. Garai hartan ez zen zergarik ordaintzen baserrietan obrak egiteko, ezta etxe berriak egiteko ere.

Udal langile bat zegoen eta bere lana oso garrantzitsua zen. Ura- ren ardura zuen, herriko txukuntasuna eta udaleko biltegia.

Udal taldea 5 gizonen osatzen zuten, ardurak banatuta zinegotzi bakoitzak askatasuna zuen bere arloan aritzeko. Hauek ziren orduan zeuden arloak: kultura, mendiak eta baserria, osasuna eta gizarte gaiak, hirigintza eta obrak eta diruzaintza. Orduan ez zen herritarrekin batera osatutako komisiorik.

1997an Zerain Dezagun Fundazioa sortu zen, gogoeta sakon bat egin ondoren, herria bizirik mantentzeko. Aurrera begira jendea ekartzen segitzeko asmoa zegoen eta arlo ekonomikoa zaindu eta lanpostu batzuk sortzeko beharra ikusi zen. Fundazioa izatea hobetsi zen sortuko ziren irabaziak atzera Zerainen inbertitzeko modua izateko, baina fundazioak berak irabazteko helbururik izan gabe. Honekin lortu nahi zen Fundazioak Zerainen garapenaren ardura hartzea eta Udalak berezko dituen lanei heldzea, horien artean hirigintza.

1999ko martxoaren 20an herri mailako lehen Herri Batzarra antolatu zen egin berria zen aterpetxean. 2000ko apirilaren 8an Herri Batzarra ospatu zen bigarrenengoz. 2001eko uztailaren 28an egin zen urteko Herri Batzarra.

2012an komisio bidez auzolana antolatzen hasi zen. 15 lan talde osatu ziren baina ez zuten luzaroan funtzionatu. Komisioak murriztu ziren.

2015ean lau batzorde osatu ziren herritarrekin eta horietako hiru hilabeteko maiztasunarekin funtzionatzen dute. Batzorde irekiak dira.

UDALAREN OSAERA

Ondorengo taulan 30 urte hauetan osatu diren udal taldeak berreskuratu ditugu:

AGINTALDIAK	UDAL TALDEKO KIDEAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
1987/ 1991	Iñaki Berasategi, Santiago Muñoa, Luis Aizpeolea, Jose Manuel Oria, Xanti Alustiza.	0	5
1991/ 1995	Iñaki Berasategi, Antonio Garzia, Jose Manuel Oria, Andoni Alustiza, Mari Flor Mendizabal.	1	4
1995/1999	Antonio Garzia, Jose Manuel Oria, Mari Flor Mendizabal, Jexux Intxausti, Andoitz Telleria.	1	4
1999/2003	Andoni Alustiza, Iñaki Berasategi, Jexux Intxausti, Haritz Iztueta, Andoitz Telleria	0	5
2003/2007	Iñaki Berasategi, Haritz Iztueta, Aitor Zabalo, Mariajexux Mendizabal, Igor Elortza, Mari Flor Mendizabal, Antonio Garzia.	2	5
2007/2011	Jose Manuel Oria, Andoni Alustiza, Aitziber Makazaga, Haritz Eguren, Mariajexux Mendizabal.	2	3
2011/2015	Jose Manuel Oria, Andoni Alustiza, Haritz Iztueta, Itxaro Alustiza.	1	3
2014	Gestora: Haritz Iztueta, Andoni Alustiza, Jose Mari Telleria	0	3
2015/2019	Arantza Ruiz de Larrinaga, Jose Mari Apaolaza, Jabier Aizpeolea, Amaia Junquera, Mikel Etxeberria, Aloña Elortza, Luisa Aierbe.	4	3
8 agintaldi			
1986-2019	GUZTIRA: 46 udal ordezkari	11 emakume	35 gizon

- **11 emakumezko udal ordezkari.** Kontuan hartuta horietako bi zinegotzik behin baino gehiagotan errepikatu dutela, guztira 8 emakume izan dira herritarren ordezkariak udalean 1988tik gaur egunera arte. Horietatik 4 (% 50) indarrean dagoen agintaldian.
- **35 gizonezko udal ordezkari.** Horietako 10 zinegotzik agintaldi bakarra egin dute, eta beste 7k askotan errepikatu dute (bi, hiru, lau eta bost agintaldi desberdinetan). Guztira 17 gizon izan dira herritarren ordezkariak udalean 1988tik gaur egunera arte.
- **30 urtetan** 25 pertsona pasatu dira udaletik, 17 gizon eta 8 emakume.



URTEKARIAREN BILAKAERA

30 urtetan urtekaria bera aldatuz joan da herria eta herritarrak aldatzen joan garen moduan.

Dena da dinamikoa askotan kontrakoa uste dugun arren. Eten-gabeko mugimenduan gaude.

Zaila da atzo bezala gaur egitea. Idazteko makinak joan ziren eta haien ordeaz ordenagailuak iritsi zitzaizkigun ia ia oharkabea. Argazki makina analogikoak gure etxeetatik desagertu ziren, baita negatiboak ere. Argazki makina digitalek eta ordenagailuek asko erraztu digute urtekaria egiteko prozesua, dudarik gabe. Hona hemen urtekariak izan dituen aldaketa nagusiak:

FORMATUA



Lehen bi aleak, 1988 eta 1989koak desberdinak dira, paper zuri normalean eta makinaz egindakoak. 1990eko urtekaritik aurrera azalak kalitatezko paperarekin egindakoak dira.

AZALA

Azalak denak kolorezkoak. Lehen 14 urtekarietako azalak argazkiekin eginak dira. 15. urtekaritik aurrera, azalak konposizioen bidez egindakoak dira. 2001etik 2014ra Joxe Mari Telleria herritarrak egin zituen azalak. 2015eko urtekariaren azala gazte eta haurrek elkarlanean egindakoa da. Eta 2016 eta 2017ko azalak herri mailan egindako lehiaketaren irabazleen emaitza da: Izar Foronirena 2016koa eta Aroa Saenz de Egilazena 2017koa.



ORRI KOPURUA

Hasierako urteetan urtekariak 30-50 orrialde artean zituen. 2002tik aurrera orrialde gehiago duela esan daiteke, gehiengotan 50-60 artean.



EDUKIAK

Urtekariak eduki asko eta anitzak dituela konturatzen gara edukiei errepasoa eginez gero. Hutsik gabe urtero egin diote haur eta gazteek ekarpena urtekariari. Ipuinak, pasadizoak, marrazkiak, edo txistek direla bertan utzi dute beraien arrastoa.

Elkarrizketaren atala ere klasiko bat da Zeraingo urtekarian. Ale guztietan elkarrizketatu dute norbait, gehienetan bertako herritarra eta gutxi batzuetan herriarekin harremana duen beste pertsonaren bat.

Behean ikus daiteke nortzuk elkarrizketatu diren 30 urte hauetan, noren ahotsek jarri dioten boza gure herriko historiari aipatutako elkarrizketen bidez.

	ELKARRIZKETATUA	ARLOA	EMAKUMEA	GIZONA
1988	Iñaki Berasategi	Udala: alkatea		X
1989	Jabier Muñoa	Artzaina		X
1990	Jose Antonio Iparragirre	Baserritarra		X
1991	Juan Muñoa	Arotza		X
1992	Antton Alustiza	Udala: turismo zinegotzia		X
1993	Joxe Mari Telleria	Txistulari eta margolaria		X
1994	Inozentzio Olea	Bertsolaria		X
1995	Aitzol Telleria	Mendizalea		X
1996	Jose Mari Alustiza	Herritarra		X
1997	Antonio Gartzia	Udala: alkatea		X
1998	Joxe Manuel Oria	Udala: Partzoneriko zinegotzia		X
1999	Joan Apaolaza	Ikazkina		X
2000	Elena Mendizabal eta Aitziber Makazaga	Turismo arduradunak	X	X
2001	Joxe Arakama	Udala: alguazila		X
2002	Nicola Foroni	Herritarra		X
2003	Karmele Goñi	Historialaria	X	
2004	Jakoba Errekondo	Udala: teknikaria		X
2005	Liztormendi elkarteko kideak	Herritarrak	X	X
2006	Mikel Zalbide	Herritarra		X
2007	Markos Alustiza	Gudaria		
2008	-	-	-	-
2009	Jon Harreguy eta Martina Urbiztondo	Artzainak	X	X
2010	Luis Aizpeola, Antonio Alustiza eta Patxi Arrond	Bolariak		X
2011	Josetxo Zufiaurre Patxi Saez de Egilaz	Etnografo ikertzailea		X
2012	-	-	-	-
2013	Alfredo Moraza	Historialaria eta arkeologoa		X
2014	Xabier Agote	Albaola Elkarteko kidea		X
2015	Joxe Mari Apaolaza	Baserritarra		X
2016	Maria Angeles Iñurrategi	Artzaina	X	
2017	Belen Barrejon de Mora, Katherine Garcia Toapanda, Javier Jimenez, Pedro Ramirez Eraso, Unai Gimenez Garcia	Euskara ikasleak	X	X
GUZTIRA	36 lagun (izen abizenekin)		7	29



Ikus daitekeenez gizonen begi-rada gailentzen da dudarik gabe. Lehen 12 aleetan ez zen emakume bakar bat elkarriketatu.

Aipatu beharra dago argazki asko dituela eta horietako asko argazki zaharrak direla. Argazkiei erreparatuta emakumeen argazki gutxi dagoela esan daiteke.

URTEKARIAREN ALDAKETA NAGUSIAK:

URTEA ZER ALDATU DEN

- 1990** Azala, maketazioa eta paperaren kalitatea
- 2002** Azalaren diseinua
- 2012** Maketazioa eta kolorea barruko orrialdeetan
- 2015** Paperen kalitatea. Etxe guztietara doan banatzea.
- 2016** Urtekaria egutegia dakar. Lehiaketa bidez lantzen da azala. Urte natural, urtarriletik abendura.





Era guztietako argi lanak etxe eta lantegietan- Led argiztapena
Telekomunikazioak- Iberdrola Puntua- Aholkularitza Energetikoa

Tfnoa: 943 800000
Faxa: 943 801826
www.aizkorpe.com

Goardiako Industriegunea 14 -1. Atzea
20213 IDIAZABAL - Gipuzkoa
aizkorpe@aizkorpe.com

URTEKARIA AUZOLANAREN EMAITZA

1988an 18 lagunek hasitako lanak ez du etenik izan.

Kate bat izan da, herri kate bat.

184 kate begiz osatutako herri katea.

Euskararen, herriaren, bizitzaren eta etorkizunaren alde lanean ibili den, dabilen eta ibiliko den herritar multzoa.

183 pertsonak parte hartu dute 30 urte luze hauetan urtekariako 30 aleak prestatzen. Horietatik 92 gizonetzko eta 91 emakumezko.

Guztion artean 1.026 kolaborazio egin ditugu guztira, ez da txantxetako egindakoa.

Haur eta gaztetxoek lana goraipatzea besterik ez dugu: 61 haur eta gazte parte hartu dute auzolan honetan 194 kolaborazioen bidez. Horietatik 18 modu kolektiboan egindakoak izan dira, taldean alegia.

Banakako kolaborazioekin batera garrantzitsuak izan dira taldeek edo erakundeek egindakoak, guztira 77.

Hauek izan dira urtekaria egiten parte hartu duten 13 taldeak:

- Aldabe Koop. Elkartea
- Basarte Guraso Elkartea
- Dordoñara joandako lagun taldea
- Eskolako haurrak
- Eskolako irakasleak
- Gaztetxoak
- Herri Eskola
- Kultur Etxea, OA Kultur Elkartea
- Liztormendi Elkartea
- Lumagorri
- Txirbil Koop. Elkartea
- Udala (Udal artxiboa)
- Zerain Dezagun Fundazioa

56 pertsonak eta taldeek argazkiak eskaini dituzte, baina ez da beti aipatzen argazkien iturria beraz, gehiago izango dira ziurrenik.

57 pertsonen artean 177 artikulua idatzi dituzte, horietatik 19 emakume eta 38 gizon.

Artikulu gehien idatzi dituzten bostak:

- Mikel Zalbide
- Inozentzio Olea
- Juan Mari Etxaluze
- Arantza Ruiz de Larrinaga
- Elixabete Garmendia

49 pertsonen artean 103 kolaborazio txiki (testuak, idatziak, artikulua laburrak...) egin dituzte. Kolaborazio mota hau gehien egin dituzten bostak:

- Mari Flor Mendizabal
- Kontxita Gabiria
- Andoitz Iztueta
- Jon Muñoa
- Juan Mari Iztueta

Urtekariako lantaldean 30 urtean herriko 45 pertsona aritu dira lanean. Horietako askok urte luzez segidan. Urte gehien aritutakoak:

- Mari Jexux Mendizabal (23 urte)
- Elena Mendizabal (21 urte)
- Kontxi Errasti (20 urte)
- Aitziber Makazaga (18 urte)
- Ixiar Alustiza, Jexux Intxausti (13 urte)

Baina izan ditu urtekariak kanpoko laguntzaileak ere, 28 pertsonak era desberdineko 81 kolaborazio egin dituzte. Pertsona horiek herrikoak izan gabe Zerainekin harreman estua dute edo izan dute.



**Guzti guztiei,
ESKER MILA!!!**

AZKEN 30 URTETAN ZERAINGO URTEKARIA EGITEKO PARTE HARTU DUTEN GUZTIAK 1988 - 2017

1	Adelita	Aizpeolea	43	Elena	Mendizabal
2	Adur	Balerdi	44	Elixabete	Garmendia
3	Ainara	Ezeizabarrena	45	Emma	Arrondo
4	Ainhoa	Arzelus	46	Enara	Aizpeolea
5	Aitor	Ugalde	47	Enara	Sodupe
6	Aitor	Zabalo	48	Endika	Alustiza
7	Aitziber	Makazaga	49	Eneko	Arzelus
8	Aitzol	Telleria	50	Eneko	Dorronsoro
9	Aizpea	Elortza	51	Eneritz	Iztueta
10	Alaitz	Makazaga	52	Eva	Centeno
11	Alfredo	Moraza	53	Felix	Lardizabal
12	Aloña	Elortza	54	Garazi	Zubeldia
13	Aloña	Salsamendi	55	Garbiñe	Alustiza
14	Amaia	Apaolaza	56	Gotzon	Ansoleaga
15	Amaia	Junquera	57	Gregori	Telleri
16	Amets	Ojanguren	58	Gurutze	Iparragirre
17	Ander	Foroni	59	Haitz	Balerdi
18	Andoitz	Apaolaza	60	Haitz	Iturrioz
19	Andoitz	Iztueta	61	Haizea	Foroni
20	Andoitz	Telleria	62	Haritz	Iztueta
21	Andoni	Alustiza	63	Harriet	Apaolaza
22	Andrea	Kara	64	Hilari	Lapitzondo
23	Antonio	Alustiza	65	Iban	R. Aizpeolea
24	Antonio	Garzia	66	Idoia	Imaz
24	Antton	Alustiza	67	Iker	Aizpeolea
25	Anttoni	Zaldua	68	Iker	Gomez de Segura
26	Araitz	Larrea	69	Imanol	Lazkanoiturburu
27	Arantza	Ruiz de Larrinaga	70	Ines	Alustiza
28	Arantzazu	Gereñu	71	Inozentzio	Olea
29	Arantzazu	Muñoa	72	Iñaki	Alustiza
30	Arkaitz	Orbegozo	73	Iñaki	Berasategi
31	Aroa	Saez de Aguilar	74	Iñaki	Intxausti
32	Arritxu	Etxaluze	75	Iñaki	Kosmendi
33	Asier	Galdos	76	Ion	Aranburu
34	Belen	Abendibar	77	Ion	Muñoa
35	Beñat	Zubeldia	78	Iraitz	Iparragirre
36	Bixenta	Oria	79	Irati	Eguren
37	Edorta	Kortadi	80	Irati	Saez de Eguilaz
38	Edurne	Urbizu	81	Irenia	Apaolaza
39	Edurne	Urkia	82	Isusko	Vivas
40	Egoitz	Apaolaza	83	Itoitz	Alustiza
41	Ekain	Ansoleaga	84	Itxaro	Alustiza
42	Eki	Iturrioz	85	Itsaso	Lazkanoiturburu



86	Itziar	Alustiza	136	Lur	Elortza
87	Ixabel	Urbizu	137	Maddi	Telleria
88	Ixiar	Telleria	138	Maialen	Alustiza
89	Izar	Foroni	139	Maitane	Salsamendi
90	Izaskun	Etxaluze	140	Maitena	Alustiza
91	J. Anjel	Egaña	141	Mari	Garcia
92	Jaione	Arnaez	142	Mari Jose	Murua
93	Jakoba	Errekondo	143	Mari Karmen	Arakama
94	Javier	Muñoa	144	Marisol	Telleria
95	Jexux	Ezeizabarrena	145	Maria Angeles	Iñurrategi
96	Jexux	Intxausti	146	Maria Jexux	Mendizabal
97	Jokin	Intxausti	147	Maribel	Alustiza
98	Jon	Etxeberria	148	Maribi	Dorronsoro
99	Jon	Harreguy	149	Mariflor	Mendizabal
100	Jon	Lekuona	150	Marisol	Telleria
101	Jone	Oria	151	Martin	Aratz
102	Josetxo	Zufiaurre	152	Mikel	Etxeberria
103	Josu	Etxeberria	153	Mikel	Intxausti
104	Josu	Lazkanoiturburu	154	Mikel	Iparragirre
105	Josune	Bengoetxea	155	Mikel	Oria
106	Joxe	Arrondo	156	Mikel	Zalbide
107	Joxe	Lafont	157	Mirari	Iturzaeta
108	Joxe Antonio	Iparragirre	158	Miren	Etxaluze
109	Joxe I.	Berasategi	159	Miren	Makazaga
110	Joxe Mari	Etxaluze	160	Nahikari	Alustiza
111	Joxe Mari	Intxausti	161	Nekane	Alustiza
112	Joxe Mari	Muñoa	162	Neli	Ferreira
113	Joxemari	Agirretxe (Porrotx)	163	Nicola	Foroni
114	Joxemari	Telleria	164	Oihane	Lazkanoiturburu
115	Juan	Apaolaza	165	Olatz	Aranburu
116	Juan	Muñoa	166	Oroitz	Altuna
117	Juan Mari	Alustiza	167	Ortzi	Harreguy
118	Juan Mari	Iztueta	168	Patxi	Arrondo
119	Juanjo	Aizpeolea	169	Patxi	Perez
120	Julen	Aranburu	170	Patxi	Saez de Egilaz
121	Juli	Lasa	171	Pello	Rubio
122	Julian	Muñoa	172	Pilar	Imaz
123	Karmele	Goñi	173	Pili	Aseginolaza
124	Karmen	Alustiza	174	Ramoni	Lopetegi
125	Kizkitza	Garcia	175	Rober	Grenier
126	Koldo	Aizpeolea	176	Unai	Eguren
127	Kontxi	Goena	177	Urki	Balerdi
128	Kontxi	Errasti	178	Uxue	Arnaez
129	Kontxita	Gabiria	179	Uxue	Saez de Egilaz
130	Koro	Alustiza	180	Xabier	Agote
131	Laida	Alustiza	181	Xabier	Dorronsoro
132	Liliana	Santos	182	Xabier	Lazkanoiturburu
133	Loli	Gonzalez	183	Xanti	Muñoa
134	Luis	Aizpeolea			
135	Luisa	Aierbe			

EKINTZAK

TXOTXI!



Zeraingo bi sagardotegiekin urtarrilak 13an eman zioten hasiera aurtengo denboraldiari. Otatzakoek Imanol Artola pilotaria eta Tobera eskolako trikitilariak eta Xabier Arakama trikitilaria izan zituzten gonbidatu irekieran eta Oiharten Unai Agirre, Aitor Mendiluze eta Iker Zubeldia bertsolariak eta trikitilariak izan ziren.

SAN BLAS EGUNA

San Blas eguna ospatzeko Zerainlab-ek afari-merienda antolatu zuen sozietatean otsailaren 3an.

SANTA AGEDA BEZPERAN

Otsailaren 4an, etxez etxe kantuan ibili zen korua eta beste herritar batzuk, tradizioa mantenduz.

TUTE TXAPELKETA

Otsailaren 25ean, Liztormendi elkartearen tute txapelketa izan zen eta bertan, Pako Ariztimuño eta Julian Imaz segurarrak izan ziren irabazleak.

KIROLARI BURUZKO IKERKETA



Gipuzkoarren pertzepzioak ezagutzeko azterketa kualitatiboa egiten ari da Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol zuzendaritza. Zerain eta Mutiloari egokitu zitzaion 30-55 urte arteko kirola praktikatzeko duten gizonen iritzia bilteza Zeraingo udalean egin zen saio baten bidez, otsailaren 16an.

MUS TXAPELKETA



Otsailaren 18an, larunbata, Mus Txapelketa jokatu zen Liztormendi elkartearen bertan bi herritarrek, Joan Mari Iztuetak eta Raimundo Intxaustik irabazi zuten. Guztira, 23 bikotek parte hartu zuten eta hauen artean arkume bat zozketatu zen.

IHAUTERIAK


Otsailaren 23an eskolako ihauteriak ospatu zuten herriko umeek. Ondoren Bazarre Guraso Elkarteak merienda prestatu zuen Maixunen.



GARBIÑE ALUSTIZA IZENDATU DUTE BOLA ETA TOKA FEDERAZIOAN LEHENDAKARI.



IRENIA APAOLAZA EUSKADIKO TXAPELDUN ORDEA 300 METROTAN



ZERAINDARRAK LILATOIAN

Martxoaren 5ean, Donostian 28. Lilatoia ospatu zen. Guztira korrika, oinez edo patinetan parte hartuz inguratu ziren 6.000 emakumeen artean Zeraindarrak ere presente izan ziren. Zeraingo 5 emakume izan ziren bertan berdintasunaren alde korrika: Aloña Salsamendi, Arantza Gereñu, Oroitz Altuna, Aloña Elortza eta Izar Foroni.

EMAKUMEEN EGUNA

Emakumeen nazioarteko egunaren harira, OA Kultur Elkarateak Euskal Herriko emakumez hitz egiteko Kultur Etxean saio interesgarri eta parte hartzailea antolatu zuen, ondoren Ostatuan afari eder batekin amaitzeko. Zerainlab-ek eta pintxo-poteko jubilatuek pintxo poteoa antolatu zuten, Ostatuan, Maialen Akizu eta Ane Beloki bertsolariekin.

INAUSKETA IKASTARO PRAKTIKOA

Fruta arbolak inausten ikasteko ikastaro praktiko irekia egin zen Mendarte base-rrian martxoaren 11n, Xabi Akizuren eskutik.

GOIERRI BIZIRIK

Zeraingo Udalak babesa eman zion Goierri Bizirik herri plataformak Donostian antolatu zuen prentsaurrekoari. Zeraingo udal ordezkariak bat, beste zeraindarrekin batera, egin zuten Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean elkartu zen jende andanarekin.

AIZKORPE BAILARA

Aizkorpe eskualdeko udalen koordinazioa urtero bezala, martxoan 25ean izan zen. Bost herrietako zinegotziak elkartu ziren Idiazabalen. eta bukatzeko elkarrekin bazkaldu zuten.

AIZKORA APUSTUA URRETXUN

Xabier Dorronsoro zeraindarrak eta Julen Aranberri zumarragarrik aizkora apustua jokatu zuten martxoaren 18an Urretxuko Ederrena pilotalekuan, Xabierrek irabazi zuen.

UDALBILTZA

Bukatu da Udalbiltzako Gogoeta prozesua. Bertan Zeraingo zinegotziek eta alkateak parte hartu dute, Udalbiltzak Euskal Herriko lurraldetasuna eta kohesioa bultzatzen du.

**Oiharte**

Nekazalturismoa eta sagardotegia

Maria Luisa Urrestarazu

20214 Zerain

Tel: 680 171 291

20. KORRIKA



20. Korrika iritsi zen Goierrira apirilean eta gure herritik apirilaren 8an pasa zen. Mutilotik sartu eta Hirukate auzotik pasa eta gero, herri gunera iritsi zen, bertatik al-dapa behera Legazpi aldera abiatzeko. Jende ugari egin zion ongietorria Korrikari, aurten gainera larunbata izanik inoiz baino jende gehiagok. Testigua eskuz esku pasatu zen, haur, gaztetxo, heldu zein adinekoen eskuetatik.

Dena ondo prestatzeko Korrika Batzordea osatu zen eta lau bilera egin zituen. Korrika babesteko hainbat ekintza egin genuen: Zerainen 5 kilometro erosi ziren aurten, inoiz baina gehiago eta aipatzeko da eskualde mailako Tobera Musika Eskolak eta Gipuzkoako Eskola Txikien Koordinakundeak ere bertan erosi eta bertan eraman zutela testigua. Martxoaren 7an eskolako haurrek petoak egin zituzten eskolan. Ondoren, herriko plazan Po-txolo pailazoaren saioa izan zen, musika

eta mokadutxo batekin bukatzeko. Martxoaren 8an korrikako material salmenta egin zen plazan. Egunean bertan korrika egin eta gero txokolate jana izan zen soziedadean.

SAHARARA BIDALTZEKO ELIKAGAI BILKETA

Zeraindarrok Sahararen aldeko Karabana-rekin bat eginez gure ekarpena egin genuen urtero bezala. Makina bat atun lata, sardina lata, azukre, arroz, dilista, pasta eta konpresa bildu ziren herriko udaletxean eta eskolan.

ZERAINDARRAK BAIONAN

Zeraindar mordotxo bat parte hartu genuen Baionan apirilaren 8an milaka euskaldunekin batera bakearen artisauei babesa emateko.

AMASAHARA

Martxoaren 28tik apirilaren 8ra arte, Kultur Etxean, AmaSahara izeneko erakusketa izan dugu. Bertan, "Maiatzak 20"-k, Saharar herrien lagunen elkarteak, Oporrak Bakean programari laguntzeko helburuz auzolanean egindako 21 argazki eta artelan ikusi ahal izan ditugu.

PIRINIOETAKO BURDIN BIDEA

2008tik aktibitate gutxi izan du Pirinioetako Burdinaren Bidearen proiektua beraktibatu da eta mugaz gaindiko elkarte

berria sortu dute Frantzia, Katalunia, Andorra eta Euskal Herriko udal eta erakundeek proiektuari bultzada emateko.



BERTSO TXIKI, SAIO HANDI

Maiatzaren 6an, Bertso txiki, saio handi, belaunaldiak elkarrekin neurri txikian kantari, desafioa izan zen Zerainen. II. Edizio honetan gazteak vs. Beteranoak aritu ziren.

Izal
Imaz eta Contreras

Pintura eta papergintza

20213 Idiazabal

Tel: 943 187 049 / 943 187 045

SEGURA ZERAIN MENDI PROBA

Maiatzean Segura Zerain urteko mendi proba ospatu zen. Aritz Kortabarria arrasatearra izan da azkarrena 24,5ean ibilbide Emakumezkoetan Aitziber Ibarbia zizurkildarra lehengoa izan zen. Zeraindarrak laguntzen ibili ginen eta nozki parte hartzea ere bai.



ZERAINGO UDABERRIKO KULTURALDIA

Kultur Aстетik Udaberriko Kulturaldira jauzia emanez, aurten maiatzean zehar ospatu zen Udaberriko Kulturaldia hainbat ekintzekin:

PAKO ETXEBERRIA



Maiatzaren 11n Goierriko forentse famatuaren eskutik hitzaldi oso interesgarria izan genuen Zerainen, 60 lagun inguruk parte hartu zuten

MARRAZKI RALLYA

Maiatzaren 12an umeen Marrazki Rallya izan zen eta aipatu beharra dago marrazki dotoreak egin zituztela.



PATATA TORTILLA LEHIAKETA



VIII. lehiaketan 9 taldek parte hartu zuten frontoian, eta epai mahaia Uxue Saez de Egilaz eta Amaia Junquerari eman zion lehen saria, bigarren saria berriz, Mikel Etxeberria eta bere lagun Mikel eta Larak osatutako taldeari, eta hirugarren saria Mikel Iturrioz, Eki Iturrioz eta Enara Soduperi.

SAN ISIDRO BEZPERA

Udaberriko Kulturaldiko erdigunean kokatu zen baserritarren eguna ospatzeko herri bazkaria. Maiatzaren 14an, Zerain landa eremuko herria izanik bere sustraiak balioan jarri ditugu eliz atarian he-

rriko produktuekin egindako bazkari bikainarekin: arkume txuletilak eta Luma-gorriko hegoak parrillan entsaladarekin eta postrerako herriko gazta goxoa.



BERDINTASUNAREN TAILERRA

Genero indarkeriaren inguruko tailerra izan genuen aldiz maiatzaren 24ean Farapiren eskutik. Lehenik testigantza batzuk irakurri ziren eta ondoren gaiaren bueltako solasaldia egin zuten bertaratu ziren lagunek



Otatza Sagardotegia

Joxe Antonio Iparragirre

20214 Zerain

Tel: 943 801 757



ARANTXA URRETABIZKAIA


Maiatzaren 18an, Arantxa Urretabizkaia idazlearekin solasaldi paregabea izan genuen. Berak gertutik bizi izan du Hondarribiko Alardearen inguruan sortutako konfliktua eta indarkeria. Hondarribiko alarde mistoan 20 urtez parte hartu ondoren, liburua idatzi du Arantxa Urretabizkaia bere esperientzarekin: *Bidean ikasia* du izenburua. Berarekin egindako solasaldian liburuaren pasarteak irakurri dizkigu eta bere gogoetak konpartitu zizkigun.

Urretabizkaiaaren esanetan, bidean ikasi du, besteak beste, "nolakoak garen benetan". Bere esanetan, "desadostasunarekin zer egiten dugun" da kontua. Ez dakigu desadostasuna ondo kudeatzen. Hondarribiko Alarde diskriminatorioarekin gertatzen dena ulertzeko baliagarria izan da oso. Argi ikusi dugu matxismoak askotan tradizioaren aitzakia erabiltzen duela bere boterea mantentzeko. Horregatik idazleak uste du, Hondarribiko alar-

dean ez ezik, beste hainbat egoeratan gertatzen dena ere isla dezakeela liburuak. Gomendagarria benetan irakurtzea euskara jatorrean idatzitako liburu interesgarri hau. Ez da harritzekoa aurtengo Euskadi Saria Arantxa Urretabizkaia irabazi izan. zorionak!!

MUSHERRAK ZERAINEN

Baltasar Gallardo Musherraren hitzaldia izan genuen maiatzaren 19an. Aurrez plazan haur eta helduek 3 txakurrekin ibili, ukitu eta argazkiak ateratzeko aukera izan zuten.



·AMAIUR AZKEN GAZTELUA



Juantxo Agirre Mauleon, Arantzadi Zientzia Elkarteko idazkari nagusari esku-tik Amaiur azken gaztelua Nafarroako konkistaren inguruan hitz egin genuen. Historia, sinbologia, inplikazioa, auzolana eta gaztelua errekuiperatzea izan zuten hizpide.



Aranburu Harategia

Kale Nagusia, 34
20214 Segura
Tel: 943 801 014

VIRGINIA GILEN HIRU ARGAZKI ERAKUSKETA



Maiatza erditik aurrera "emakumeak eta kirola"ri buruzko argazki bilduma izan zen ikusgai. Aurretik "bakardadeak" eta "emakumeak eta publizitatea" erakusketak izan genituen Zeraingo Kultur Etxean eta plazan argazki erraldioen bidez. Hiru erakusketek emakumeen egoeraren inguruan sentsibilizatzea izan dute helburu.

SAN JUAN BEZPERA

Aurtengoan ere, San Juan bezperarekin batera eta udarari ongietorria emateko, herritarrek plazan elkartu ginen ekainaren 23an. Udaberrian zehar umeek landutako ohiko dantza ikuskizunaren eta Uharka Abesbatzaren kantuen ondoren, sua piztearekin batera mokadutxoak izan genuen giroa alaitzeko musikaren laguntzaz.



BASAZABAL IRABAZLEA



Javier Muñoa zeraindarrak urrezko saria lortu du Roma 2017 gazta sariketan. Erroman, Italiako hiriburuan saritu dute Javier Muñoa zeraindarraren Basazabal gazta. Roma 2017 lehiaketan, Gaztarik Onenaren Urrezko Saria jaso du, aske dabilzan ardien esne gordinez egindako gaztaren arloan. Zuen esfortzua eta ilusioa errekonozituak izan dira berriro ere nazioartean.

URTEKARIKO AZALA ETA FESTETAKO PROGRAMAREN AZALAREN II. LEHIAKETA

Aurtean ere bai Sanjoan bezperan herriarrek urtekari azala aukeratzeko bozketak egin genuen. Egindako bozketan hauek izan ziren aukeratutakoak: Festetako marrazkia Uxue Saez de Egilaz. Urtekari marrazkia Aroa Saez de Egilaz. Zorionak bi ahizpei.

UMEEN OSPAKIZUNA

Aurreko ikasturteari amaiera emateko, Azpeitira aste buru pasa antolatu zuen Basarte Guraso Elkarteak kurtso bukatuaren. Irailean, aldiz, udan urteak bete zituzten haurren merendola ospatu zen eta giroa onean gainera!



UDAKO SOLSTIZIOA



Ekainak 21ean udako solstizioa ospatu zuten Zeraingo San Blas ermitan, Eguzkiñe Iturrioz Euskalmeteko meteorologoak hitzaldia eman zen eta gero pintxo potea egon zen.

MUTILORA JAITSIERA




Eguraldia lagun, aurten ere Mutiloko festetan parte hartu genuen zeraindarrek. Ekainaren 30ean soinuarekin animatuta oinez jaitsi ziren hala nahi izan zuten herriarrek giro ederrean sagardo dastatzera.







DENBORA LIBREA

Urtero bezala, aurten ere, uztailan oso gustura ibili ziren herriko haurrak denbora librean. Nahiko jolas eta dantza egin zuten gure haurrak herriko neska gazteen eskutik.







2017ko Andra Mari jaiak

Urtero bezala, abuztuaren 13an Liztormendiko gibel janarekin hasi ziren gure festak. Abuztuaren 14an iluntzeko zortzietan bota zuten Zerainen Andra Mari jaiei hasiera emateko suziria, eta aurten herriko haurrek izan zuten pregoia irakurtzeko ardura. Behin suziria botata, sagardo dastaketa eta txekor jatea izan ziren denen gozamenerako. Aurten, lehen aldiz, beganoentzako eta zeliakoentzako jakiak ere izan ziren, denek jaiez gozatu ahal izateko. Sagardo dastaketan bederatzi sagardo izan ziren aukeran: herriko Oiharte eta Otatza eta beste zazpi. Gauean, berriz, erromeria izan zen Gau Argi taldearekin, baita mojito festa ere. Andra Mari bezperako sagardo dastaketak eta txekor jateak arrakasta izaten zuen Zerainen, eta inguruko herrietako jende ugari bertaratu zen aurten ere. Andra Mari eta San Roke egunak ekintzez betetakoak izan ziren, goiz goizetik txistulariek alaitu zituzten Zeraingo baserriak eta ez zen faltatu Segurako egoitzara bisita pastel gozoezin. San Rokeko herri afari jendetsuarekin eman genion bukaera gure herriko festei.





GOIERRIKO HITZA



Goierriko Hitzak hausnarketarako tartea hartu du eta eragile eta erakundeak gonbidatu zituen parte hartzera. Bi talde osatu zituen eta Zeraingo Udaleko ordezkariak bertan parte hartu zuen gure eskualdean informazioa euskaraz ziurtatzeko oso garrantzitsua delako Hitza.

ARANTZAZURA ERROMESALDIA

Segura, Mutiloa eta Zeraingo herritarrak eguraldia lagun Arantzazura joan ziren irailaren 4an. Lehenik oinez igo ziren Urbiara eta bazkal ondorenean Arantzazura jaitsi ziren.

BOST HERRIETAKO III. IBILALDIA

Hirugarren urtez Segura, Idiazabal, Zegama, Mutiloa eta Zerainek bost herriarteko ibilaldia antolatu zuten irailaren 16an eta 40 lagunek taldean egin zuten aipatutako ibilaldia.

XXIII. AZOKA EKOLOGIKOA



Giro paregabea eta eguraldia lagun, jende ugari hurreratu zen Zerainera aurtien irailaren 18an ospatu zen XXIII azokara. Kasualitatea 23 ekoizleren salmenta postuak ikusi eta bertan erosteko aukera egon zen. Jaia girotzeko herriko gazteek antzinako erara egin zuten muztioa, haurrentzat gailera tailerrak antolatu zituzten eta bertakoek ekoiztutako produktuak ere salgai egon ziren.

WORLD CHEESE AWARDS LEHIAKETA

World Cheese Awards lehiaketa, aurtien, azaro honetan Donostian egin zen eta euskal gazta bakarra sartu zen munduko 66 gazten Super Gold sarien zerrendan. Zeraingo gure bi artzainek Basazabal eta Aranburu, brontzeko saria jaso zuten.

LEGAZPIKO BOLA TXAPELKETA



Luis Aizpeolea bigarren izan zen Legazpian urriaren 10ean ospatu zen Manolo Uribebeberriaren memoriako bola txapelketan.

BOLA TXAPELKETA GABIRIAN

Urriaren 12an jokatu zen Gabirian 24. Osinalde Bola Txapelketa eta emakumezkoetan Aitziber Makazagak irabazi zuen.

HIP HIP URRI

Aizkorpe bailarako haurrek egindako lanen erakusketa ibiltaria izan genuen herri herri: Idiazabal, Mutiloa, Zerain eta Zegama.. Zerainen urriaren 20an inau-



Ostatu Jatetxea

2014 Zerain

Tel: 943 801 799

ratu zen Kultur Etxean lanen erakusketa ibiltariaren irekiera eta bertan Tiritatxoren bisita izan genuen.



JUBILATUEN EGUNA



Urriaren 29an ospatu zen aurtengo herriko jubilatuen eguna; 13.00etan meza-rekin hasi, eta ondoren bazkaria izan zen Ostatun Loidisaletxe eta Milan Telleria bertsolariekin. Jende asko, giro ederra eta oso gustura egon ziren Zeraingo Jubilatuak. Aurten ere beti bezala emakumezko eta gizonezko ordulari bana zozketatu ziren parte hartu zutenen artean.

KONTSUMO TALDEA



Urrian Mendarteko Iñaki Intxaustik kontsumo talde bat eratu du Seguran. Ekonomia sozialean oinarritutako ekimenak ongi etorriak dira. Zorionak eta zorte on, Iñaki!

BIGARREN URTEKO BALORAZIOA

Aurten ere udalak bere bigarren urtearen balorazioa burutu du. Horretarako, etxe guztietan galdeketa bat banatu da, modu anonimoan eta indibidualean betetzeko eta ondoren postaz bidaltzeko. Galdetegiak dagoeneko bildu dira eta hauen emaitzak hurrengo urtean argitaratuko dira.

TOBERA MUSIKA ESKOLA



Azaroaren 16an, herriko plazan Tobera Musika Eskolaren emanaldia izan zen eta bertan parte hartu zuten eskualdeko 40 haur eta gaztek, dantzan, txistua joz eta soinu txikiko trikitixa doinuekin.

TALO ETA GAZTAINA JANA



Azaroaren 18an Basarte Guraso Elkar-teak antolatuta urteroko talo eta gatzaina jana egin zen frontoian. Txistorra, gazta, hirugihar eta txokolatzeko taloak jateko aukera paregabea izan zuten hala nahi izan zuten herritarrek, jende asko eta giro eder batean.

AUZOLANA BARBARIN

Urteroko ohiturari jarraituz, azaroaren 24ean bildu ziren Barbariko auzotarrak bide eta erretenen garbiketa burutzeko.

KIROLARIAK ESKOLAKO HAURREKIN

Azaroaren 30ean, Goierriko bi kirolari herrira etorri ziren eta eskolako haurrekin elkartu ziren. Kirolariak elkarriketatu eta ondoren beraiekin jolasteko aukera izan zuten.



Ondarre

Harategia · Frutak · Barazkiak

Zurbano kalea
20214 Segura
Tel: 943 800 326

BASERRITAR GAZTEEN MAHAI INGURUA

Abenduak 1ean, Euskal Herriko sei baserriar gazte mahai inguru egon da: "Herri txikiak, lurra, gazteak, errotxea" gaiaren inguruan hitz egiteko. Haien artean Iñaki Intxausti Zeraindarra.

CAF ERAKUSKETA



Aurten 100 urte bete dituelako CAF enpresak Lemniskata Goierriko Zientzia Sare Herrikoia elkarteak antolatutako

CAF, mende bat burdinbidearen zerbitzura erakusketa egon zen ikusgai Zeraingo Kultur Etxean, Abenduaren 1etik Abenduaren 11a tartean.

EUSKARAREN EGUNA

Herriko sarreran dagoen kartelaren alaketaz gain, Ohiarten kantu-bazkari batekin ospatu zen euskararen eguna Aitor Furundarena trikitilariak lagunduta.

SANTO TOMAS EGUNA



Urtean ere, abenduaren 22an, herriko EHBilduk antolatuta txistorra jana egon zen eliz atarian Santo Tomas eguna ospatzeko.

UDAL LANGILEEN BAZKARIA

Udal gobernuko zinegotziak eta udal langileek, urteroko legeztatuaren bazkari eder bat ospatu zuten.

IKASTAROAK

Kurtso berrian zehar, 2017/2018an, Mutilo eta Zerainen ikastaro ezberdinak antolatu dira elkarlana bultzatzuz.

Honeko hauek dira martxan dauden kurtsoak:

EUSKERA: astelehena, asteazkena eta ostirala 10.00etatik 12.00etara Kultur etxeko liburutegian (Zerainen)

YOGA: asteartea 17.30etatik 19.00etara Kultur etxean (Zerainen)

ZUMBA: asteazkena 20.00etatik 21.00etara Kultur etxean (Zerainen)

GANTXILO IKASTAROA: Kath irakasleak ikastaro hau emateko aukera adierazi du, nahi duenak izena eman dezake eta ondoren klaseak hasiko dira (Zerainen)

GIMNASIA: asteartea eta osteguna 19.00etatik 20.00etara Udaleko ganbaran (Mutilon)

Interesa duen orok, ikastaroan bertan adierazi lezake bere nahia edo bi herrietako udaletan izena emanda. (Mutiloko udala: 943800450 Zeraingo udala: 943801724)



Anaiak Garajea

Mekanika eta ibilgailu-konponketa

Goardiko Industri poligonoa

20213 Idiazabal

Tel: 943 187 483

ZERAINDARRON ELKARTASUNA KATALUNIAREKIN

Urria eta azaroan gauza asko gertatu da Katalunian, urriaren 1ean autodeterminazio erreferenduma ospatu zen eta, jakina denez, errepresio bortitza jasan zuten bozkatzera joan ziren milaka herritarrek. Hori gutxi ez balitz, eta hurrengo egunetan espetxeratzeak hasi ziren. Gizarte eragile independentista nagusietako arduradunekin hasi ziren eta gero Generalitateko buruzagiak espetxeratu zituzten. Gertaera guztien aurrean Euskal Herriaren elkartasuna handia izan da, herri txiki, ertain eta handietan bilkurak egon dira deialdi zabal eta anitzen bitartez. Zerainen ere, elkartasuna adierazteko hainbat elkartaratze eta kazerolada egin ditugu plazan eta udaletxe aurrean. Horiekin batera aipatu behar da estelada presente izan dugula, udaletxeko fatxadan, geure ikurrinarekin batera. Baita ere, Euskal Herriatik Kataluñara begira eztabaida egin zen, bertan Xabier Barndiaran eta Iñaki Soto izan ziren hitzlariek eta ekitasmoa Goierriko GED antolatu zuen Zerainlabekin batera.

Gainera, herriko gazte pare bat bertako herritarrekin bat eginda, bozkaketaren aurretik eskola batean pasa zuten gaua egun garrantzitsurako lekua zaintzen. Hauekin batera, Zeraingo alkatea eta zinegotzi bat, Euskal Herriko beste hautesi batzuekin batera, nazioarteko behatzaile moduan ibili ziren bozkaketa egunean udalbiltzaren bitartez.



AZKEN URTEKO HOBEKUNTZAK

PLAZA INGURUKO OBRAK:

Plaza ingurua hobetzeko ahaleginari ekin zitzaion eta iraunkorra izango da ildo hau:

Komunak



Aspaldiko eskaera bati erantzunez komunak egin dira plazan, eliz atarian kokatuta, hain zuzen ere. Zabalik daude herritar zein bisitariek erabiltzeko. Komunetan haurrei fardelak aldatzeko gunitxoa dago.

Erreskate kardiakoa

Desfribiladorea jarri da eliz atariko komun publikoan eskuragarri, beharra dagoenean erabiltzeko.

Eliz atariko argia eta toldoak



Eliz atarian argiztapen berria jarri da eta haizea eta euria ari duenean babesteko itxiturak jarri dira. Hobekuntza hauekin eliz ataria ekintzak egiteko eta haurrek babesean jolasteko toki aproposa da.

Plazako itxiera



Haurrei leku gehiago emateaz gain, arriskuak murrizteko helburuz plazako apartakalekua lekuz mugitu da eta sarrera, egoeraren arabera, jarri edo kendu daitezkeen zutabe batzuen bidez itxi. Apartakalekua, margotu berria, Jauregi aldean kokatzen da orain. Horrez gain, aterpetxera ematen duten eskailerei ate bat jarri zaie.

Artea

Hainbat urteren ostean plazako arte ingurua hobetzeko, lurra landatu eta zelaia berreskuratu da. Orain, belardi batek ordezkutzen du lurra.

Parke txikia



Plazan bertan, eliza atzeko aldean, umeak jolasteko haur jolas gune berria egin zen. Herriko haur eta helduak elkarrekin auzolanean parkea osatzen duten gorpil berziklatuak margotu zituzten.



KULTUR ETXEKO OBRAK

Kultur Etxeko eraikinean hainbat hobekuntza egin dira:

Liburutegia eta ikasgela:


Txukundu, berritu eta martxan jarri da eta orain liburutegi berria herritar oro-orentzat zabalik dago eta haur, gazte zein helduek erabili ahal izan dute bi gela ezberdin baititu: liburutegi eremua eta ikasgela.

Mediku kontsulta eta itxarongela:



Herriko mediku kontsulta berria egin da Kultur Etxean. Kontsulta zaharrak ez zituen betetzen irisgarritasun arauak, hori dela eta, Osakidetza eskaera luzatu zion Udalari kontsulta tokiz aldatu eta berritzeko. Kontsulta berria lehen itxarongela zegoen lekuan kokatu da eta itxarongela berriz, sarreran kristaleko atea batekin babestuta.

Lehengo medikuaren kontsulta txukundu da eta musikarako eta beste ikastaro zein ekintzetarako erabilgarri dago.



Berogailua

Hondatuta zegoen galdara berri bategatik ordezkatu da, gutxiago kontsumitu eta bero gehiago ematen du orain.

Irisgarritasuna

Sarrera berriarekin Kultur Etxeko irisgarritasuna hobetu da.

FRONTOI INGURUKO OBRAK Ekipamendu berria

Pilotalekuan kirol ekipamendu berriak jarri dira herritar ororentzat: saskibaloiko bi kanasta, ping-pong mahi bat, portierarako sareak, baloia eta beste hainbat material.

Teilatua

Frontoiko teilatuaren egoera txarra ikusita, hogeita hamar urte eta gero, teilatuaren konponketa lanei ekin zitzaizen.



Teilatu berriak hobekuntza suposatzen du herritar ororentzat.

ZUNTZ OPTIKOA




Hainbeste urtetan internetarekin arazoa izan ostean azkenik zuntz optikoa jarri da herriko kaskoan eta auzo batzuetan. Hala eta guztiz ere, badira oraindik mo-vistarren zain dauden etxeak. Barbari auzoaren kasuan, internet zerbitzua hobetu den arren, zuntz optikoaren zain jarraitzen dute.

BASERRI BIDEEN KONPONKETA

Zeraingo baserri bide guztien egoeraren katalogazio bat landu da, eta ostean, hobekuntza plana martxan jarri da. Urteko bi edo hiru konpontzeko asmoz; Zabalegi, Kozmendi, Goienetxe, ... beti ere auzokideekin adostua.


SEINALIZAZIOA



Poliki poliki, seinalizazio berria jartzen ari da hainbat tokitan: kaskoan plazara joateko, Aizpean, Tellerine nekazalturismoa eta Aizpitako minak adierazteko edo UEMako errotuloak herri sarreran adibidez.

AIZPITA

Argiarekin zerikusia duten hainbat konponketa egin dira Aizpitan.



Mikel eta Arantxa

TAXI adaptatuak - 9 plaza

Tel: 660 132 512 • **Mikel**

Tel: 645 006 737 • **Arantxa**

EGOKITZAPEN TXIKIAK



Herriak egoera onean jarraitu dezan badaude urte osoan zehar egin diren hainbat lan: farolak margotu, ostatuko aparkalekuan irisgarritasun bereziko aparkalekua egin, parkearen zorua egokitu, Mandion telebista, berogailua, frigorifiko, kongeladorea eta garbigailua aldatu; Ostatuan kongeladorea, sukaldoko altzariak, telebista; kulturetxeko kontraleihoak pintatu, Turismo bulegoko sarrera egokitu, Aizpitako gunea konpondu, garbitu eta kartela berritu eta oinezko bidean, Barbarin eta Urruztiko bide gurutzean bankuak jarri dira beste hainbat gauzen artean.

SEGURA-ZERAIN OINEZKO BIDEA



Zeraingo mugatik (zubiberritik gertu) Olabideko bidegurutzera doa oinezko bide berria. Honek metro erdiko zabalera du eta errepidearen ondotik doa, oinez ibiltzen diren guztien ziurtasuna bermatzearren. Egin zenetik hona erabilera nabarmena izan du.

HONDAKIN BILKETA



Hondakin bilketen sistema egokitu da organikoarentzat edukiontzi berriak jarri, baita pixoihalentzat ere, eta material berria banatu da zeraindar guztientzat (oraindik jaso ez duten herritarrek udal-txean jaso dezakete). Aizpea eta Barbari auzoen kasuan, auzokideen eskaerei erantzunez, hondakin jasotzeko puntu berri bat jarri da bakoitzean.

LUR MUGEN EGUNERAKETA ETA DIGITALIZAZIOA


2016ko uztailan hasi zen proiektu honek, jada bi fase burutu ditu. Lehenengoan lur publikoen mugen eguneraketa

eta digitalizazioa egin zen (mapan mo-rearekin markatuta dauden lurak) eta bigarrean, aldiz, lur pribatuena (mapan urdinarekin markatuta dauden lurak) Guztira 800 hektarea dira jabetza pribatukoak eta hauetatik, dagoeneko 500 hektarea digitalizatu dira. Txostena banatu dira eta 120 lur jabeekin elkartu da udala, auzokako bileretan.

ZERRALAN BERRIRO MARTXAN



Urte batzuetako etenaren ondoren bialarako Zerrategia berriro martxan dago bazkideen pozerako.



HERRI ESKOLA



2017-2018 IKASTURTEA

Izenak, goiti behera eta ezkerretik eskuinera:
Lur, Adei, Nahia, Bidatz, Libe, Luisa, Enara, Eneritz
Ametz, Elene, Maddi, Inge, Maialen, Aimar, Aetz, Aner
Ane, Paule, Oihan, Joane, Leire, Elorri

JAIOTZAK



Unai
JIMENEZ GARCIA
2017-09-19



Egoi
DORRONSORA ALDASORO
2017-10-13



Jon GORROTXATEGI
BARREJON DE MORA
2017-12-18

HERIOTZAK

2017ko urtean

RAMONA TELLERIA AZURMENDI 2017-01-11

BIZTANLEAK

2017-11-20an

Zeraingo biztanleak: 251

EUSKERAREN ERABILERA ETA KALE NEURKETAK ZERAINEN

Zeraingo Udalak, UEMArekin kolaborazioan, euskararen erabilera maila neurtzeko kale-neurketak burutu ditu udaberrian zehar, lehen aldiz herrian. Neurketa hauek, euskararen harnasguneetan zein nolako egoera dagoen aztertzeko, eta aurreko neurketarik bazegoen, bila-kaera konparatzeko erabiltzen dira. Orokorrean, eskualdean, %61 erabiltzen da euskara eta emakumezkoek zertxobait gehiago darabilte. Zerainen kasuan, euskararen erabilera %81 ingurukoa da, hartu diren 516 laginetatik, 419 euskarazkoak izan baitira.

HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA OROKORRA

Udalerria	Guztira Lagina	Euskaraz		Gaztelaniaz		Beste hizkuntzetan	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Zerain	516	419	81,20%	95	18,40%	2	0,40%

Erabilera hau adinaren arabera banatzen badugu, ikus dezakegu gazteak direla euskara gutxien erabiltzen dutenak eta haurrek gehien. Sexuaren arabera banaketa egiten badugu, eskualde mailan bezala, emakumezkoek gehiago erabiltzen dute euskara oro har.

HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ADINAREN ARABERA

Adina		Euskaraz		Gaztelaniaz		Beste hizkuntzetan	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Haurrak	197	175	88,80%	22	11,20%	0	0,00%
Gazteak	40	21	52,50%	18	45,00%	1	2,50%
Helduak	214	172	80,40%	41	19,20%	1	0,50%
Adinekoak	65	51	78,50%	14	21,50%	0	0,00%

HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA

Generoa	Lagina	Euskaraz		Gaztelaniaz		Beste hizkuntzetan	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emakumezkoak	304	253	83,20%	50	16,40%	1	0,30%
Gizonezkoak	212	166	78,30%	45	21,20%	1	0,50%

Azkenik, haurren presentziaren eragina aztertu da, taldeetan erabilitako hizkuntza aztertuz. Emaitzetan ikusten da haurrak eta helduak nahastean euskararen erabilera igo egiten dela, batez ere helduen artean.

HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, HAURREN PRESENTZIAREN ERAGINA AZTERTZEKO SOLASKIDE-TALDEEN ARABERA

Solaskidea	Lagina	Euskaraz		Gaztelaniaz		Beste hizkuntzetan	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Haurren artean	74	60	81,10%	14	18,90%	0	0,0
Nagusien artean	238	176	73,90%	60	25,20%	2	0,8
Nahasian	204	183	89,70%	21	10,30%	0	0,0

Emaitzak onak dira, baina jarrai dezagun gure hizkuntza erabiltzen eta maitatzen!

HERRIKO IZENAREN KARTELA



Ehun urte inguru izango dira herri sarreran, Udaletxeko eraikinean, herriko izenaren kartela jarri zutela. 2014an Zerain UEMAN sartu zen eta horrekin batera udalerriko eta udaleko euskara planak landu ditugu euskararen erabilera indartzeko asmoz. Paisaia linguistiko hobetzeko neurri moduan aipatutako herriko izenaren kartela aldatzea aztertu zen eta kontsulta egin genuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen ardura duen sailean. Izena oker idatzita zegoela eta zuzen jartzea gomendatu ziguten. 2017an zehar izenaren kartela berritzeko ardura izan du zerbitzuak eta hirigintzako batzordeak. Itsasoko Pott-eko kideekin elkarlanean landu dugu kartel berria eta abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, inauguratu genuen. Lehen zegoen kartel zaharra, Cerain, urdinez idatzita zuena azulejo zurietan museoa egongo da ikusgai gure herriko historiaren parte delako. Hemendik aurrera gure izena, Zerain, zuzen idatzita eta polit ikus daiteke herri sarreran.

UEMAK INAUGURAZIORAKO BIDLITAKO IDATZIA:

Euskaldunok ederki dakigu izena eta izana estu lotuta dauden kontuak direla. Udalerrri euskaldunetan horregatik ari gara aspalidanik euskara noranahi zabaltzeko lanean, eguneroko jardunean ez ezik, baita izenari dagokionez ere, abizenak euskalduntzeko, euskal grafiaz jartzeko eta antzeko ekimenekin.

Horrelakoek, gainera, garrantzi nabarmena hartzen dute izena leku publikoetan erakusten denean. Izenak, horrelakoetan, hiz-

kuntza paisaiaren elementuak bihurtzen baitira, eta herritarrek zein bisitariak ikusten dituzte. Kasu horietan, izenak herriaren isla ere badirenez, merkatariei, ostalariei eta gainerakoei ere eskaintzen zaie zerbitzua, errotuluak, kartelak, menuak eta gainerakoak euskaraz izan ditzaten, garen bezalakoak agertu gaitzen egunero, euskaraz.

Horrek guztiak bestelako neurria hartzen du herriaren beraren izenaz ari garenean. Nora heldu zaren erakusten baitizu herriaren izenak, herriren sarreran. Eta, noski, ezberdina da herriaren izena hizkuntza batean ageri den ala beste batean ageri den.

Eta berezkoa ez duen hizkuntzan ageri denean arrazoi historikoengatik, noizbait bertako hizkuntza debekatua, jazarria eta zigortua izan delako, izena aldatzeko eta behar bezala euskaraz jartzeko hautuarekin, garen modukoak erakustez gain, memoria historikoa azaleratzeko betebeharra ere elkartzen da, euskaraz aritzeagatik zigortuak eta jazarriak izan ziren herritar guztiekiko aitortza egitearekin batera.

Horixe da gaurko ekitaldi honekin egin nahi izan duguna. Sinbolikoa baino askoz gehiago da hau guretzat. Garen bezala erakusteko premiari, euskaraz garelako esateko harrotasunari, gure hizkuntzak pairatu behar izan duena ere gogoratzen dugulako, eta jazarpena jasan zuten herritar guztien mina ere aitortzen dugulako.

Gaur, beraz, 2017ko Euskararen Nazioarteko Egunean, Zerainen, Zerain euskaraz dela, Zeraindarak euskaraz garelako eta Zerainen euskaraz bizi garelako erakusteko pausoa eman dugu.

2017ko Gabonak

Gabonetan baserriz baserri kantuan aritzeko ohiturari eutsi diogu beste behin. Urteak dira geure herrian eskolako taldea eta herriko taldea abenduaren 24an abestera irteten direla. Auzo, baserri eta etxe guztietan abestu dugu. Aurtan urtero bezala harrera beroa egin digute herritarrek. Goizeko 9:00etan elkartu dira haur eta gurasoak herriko plazan eta etxez etxe kantuan ibili ondoren 1050€ inguruan bildu dituzte. Dirua eskola eta guraso elkarteko beharretarako erabiliko da.

Gaztetxo, gazte eta helduen taldeak 1763,60 € bildu ditu eta bildutako dirua hiru helburutako erabiliko da:

- Eskualdean beharra duten herritarrentzat Bittorioren (Caritas) bidez
- Zerainen kultur ekintzak egiteko Oa Kultur Elkartearen bidez
- Euskal preso politikoentzat Etxerat elkartearen bidez

Mila esker denoi.

d















AUTOPISTA ELEKTRIKORIK EZ



“Igaro diren urteotan egindako lana ez da alferrik izan, 2011 urtean hasi genuen Itsaso-Deikaztelu Goi Tentsioko linearen aurkako mugimendua eta 2017ko apirilean jaso genuen berri on bat”.

Itsaso (Gipuzkoa) eta Deikaztelu (Nafarroa) artean goi tentsioko linea bat egitearen aurkako plataformako ordezkariak baikor hitz egin dute; izan ere, adierazi dutenez, ez da egitasmo hori egingo. Ez iragarrita zegoen eran, behintzat. Azaldu dutenez, iturri onetik jasoa dute albisteak: Espainiako Gobernuaren Ingurumen Ebaluaziorako Zuzendaritzak jakinarazi die, ofizialki. Hortik poza. Argudiatu dute, gainera, proiektua atzera botatzeko arrazoibide nagusietako bat haren kontra aurkeztutako helegite ugariak izan direla —milaka, horietako asko lineak eragingo lukeen ingurumen kalteari buruzkoak—, eta ehun udalbatzak baino gehiagok egitasmoa ez egiteko eskatuz onartutako mozioak.

Gogora ekarri dute, gainera, ez dela «herri mugimenduaren» ondorioz antzeko egitasmo bat baztertua lortzen den lehenengo aldia; izan ere, 2011n ere linearen beste ibilbide bat atzera bota zuten —Gasteizekin egiten zuen lotura—. Egitasmoak, oro har, argudio aski ahuletan oinarritzen direla uste dute plataformako ordezkariak, eta horregatik utzi behar direla bazterrean. Esaterako, bere garaian UPNk, Nafarroako Gobernuko buru, argudiatu izan zuen linea elektriko berria beharrezkoa zela Lizarrerrian argindar hornidura bermatzeko; orain, ordea, Deikaztelun lineari lotu gabeko azpiestazio bat egiteko asmoa azaldu dute egitasmoaren arduradunek, eta uste zena baino indar gutxiagoduna, gainera. Horiek horrela, UPNko buruen arrazoibideen funts falta agerian geratu dela uste dute plataformako buruek. Konpromisoa eskatu diote Nafarroako Gobernuari ere; izan ere, auziari buruz jarrera irmorik ez erakustea egotzi diote, eta haren babesak nahi dute. Izan ere, badakite REE Espainiako Energia Sareko buruek erretiratutako proiektuaren ordezkari bat aurkeztuko duela aurki, eta, potentzia txikiagoduna eta ondorio urriagoduna izango dela badirudi ere, horren aurka ere egin behar dela pentsatzen dute.

Hain justu, horretan ari dira. «Proposamen zehatzak lantzen ari gara, eta ondorio kaltegarriak izan ditzaketen udal guztiei aurkeztuko dizkiegu». Lan horretan hasteko proiektu berria ikusi zain ez dute geratu nahi. Aurreko aldietan «batasuna eta argudioen sendotasuna» bidelagun izan dituztela esan dute, eta horiexek oinarri hartuta segitu nahi dutela.





2017-2018 ikasturtea **BASARTE GURASO ELKARTEAN**

Urtero bezela hementxe gaituzue Basarte Guraso Elkartearen berri emanez. Dagoeneko jakingo duzuen bezela, Basarte Guraso Elkartek zenbait koordinazio gunetan parte hartzen jarraitzen du eta horrez gain, urtero urtero, zenbait ekintza antolatzeko dituzte ikasturtean zehar, hala nola, umeen urtebetetze meriendak, ihauteri merienda, marrazki rallya, talo eta gaztain jana, gabon eskea, dantza ikastaroa... eta baita ikasturte amaierako asteburu pasako irteera ere.

2017. urtea gabonetako oporrak pasa ostean ihauteriekin etorri zitzaigun. Umeek eskolan egindako ikuskizuna ikusi ondoren Maixunen elkartu ginen denok sabela betetzeko asmotan. Apirilean Korrika pasa zitzaigun Zeraindik, larunbat goiza izanik, jende mordoak bildu ginen Mutilotik zetozenei ongi etorria eman eta lekukoa hartzeko, Basarte Guraso Elkartek ere jarri zuen bere aletxo euskararen aldeko ekintza honetan.

Egun hau aitzaki hartuta urteroko bazkaria egiteko aukera ere izan genuen Oiharten eta Kultur astearekin batera marrazki rallya iritsi zitzaigun.

Ikasturte bukaeran, ekainean, Gipuzkoako Eskola Txikien festa egin ohi da. 2016-2017 ikasturtean, Arroako eskolari egokitu zitzaion jaialdia antolatzea eta asteburu hori aprobetxatuz asteburu pasa joan zen talde haundi bat Azkoitiako Abaraxka aterpetxera. Eguraldi lagun asteburu ederra pasa zuten.

Ikasturteari San Juan bezperarekin eman genion agurra, Andrearen laguntzari esker dantzaldia eskeini ziguten hurrek herriko plazan, bejondeizuela!

2017-2018 ikasturte berri honetan berriz, lehenengo hiru hilabeteetan DoReNi proiektua jarri dugu martxan. Proiektu honek, ki-



rola, dantza, antzerkia, kantua eta euskera lantzea ditu helburu. Musika da oinarri nagusia eta honen bidez haurren sortzaile gaitasunean eragitea da proiektuarekin lortu nahi dena. Orainartekoan egindako balorazioa positiboa izan da, hiru hilabete amaieran egin beharko da balorazio orokorra.

Azaroan talo eta gaztain jana ederra egin genuen frontoian, jende ugari bildu zen eta giro aparta sortu zen bertan. Urteari amaiera emateko berriz, gabon eskerako prestatzen hasi beharrean gaude, ea eguraldia lagun dugun aurtengoan.

Honez gain, esan, ikasturte honetan herriko bi neskatila joan zaizkigula Segurako Herri Eskolara 3. maila egitera, Irati Eguren eta Aritz Larrea. Irati Egurenen gurasoei, Maite Retolaza eta Haritz Eguren agur afari goxoa egin genien uztailean Ostatur. Bestalde, 6 neska etorri zaizkigu eskolara, Luisa Gorrotxategi, Anne Zabala, Leire eta Joane Apaolaza, Inge Ormazabal eta Maialen Ojanguren. Tartean herriko umeez gain Mutiloatik ere badatoz guregana, Annere kasua da hori eta Basarte Guraso Elkartean beste 3 familia gehiagoren parte hartzea izango dugu ikasturte honetatik aurrera.

Ongi etorri denoi !!!!



CONSTRUCCIONES EXCAVACIONES

ITURRIOZ S.A.

Polígono Eziolaza 24-B

943 18 75 56 Idiazabal

Gure Esku Dago

Gure Esku Dagok hiru ekimen nagusi aurrikusi zituen 2017. urte honetan aurrera eramateko:

HERRI GALDEKETAK.

Goierriin aurreko urteko ekainaren 5ean egin zen bozketaren ondoren, aurtien beste herri eta eskualde askoren txanda izan da, batzuk aipatzearen: martxoaren 19an (Astigarraga-Hernani, Oiartzualdea, Tolosaldea, Larrabetzu), apirilaren 2an (Busturialdea), maiatzaren 7an (Arrigorriaga, Debarrena, Durangaldea, Lasarte-Oria, Usurbil, Lea-Artibai, Legutio, Orozko, Uribe Buroe, Uribe Kosta, Urola kosta eta Zeanuri) ekainaren 18an (Basaburua, Bortziriak, Imotz, Mendiola eta Sakana)... Azkene-koak azaroaren 5ean izan dira (Otxandio, Andoain, Mundaka,

Erandio, Ibarrangelu, Getxo, Beizama, Berango, Leioa, Elantxobe eta Areatza)

ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN ALDEKO ITUN HERRITARRA.

Herri galdeketen dinamikarekin uztartuta eta 2016. urtean zehar herriz herri landutako adierazpenekin batera, erabakitze-ko eskubidearen aldeko adostasunak sortu ziren. Adosgune horiek erabakitze-ko eskubidearen aldeko Itun Herriar batean bildu ziren.



EKAINAREN 10ean BILBON EGIN ZEN MOBILIZAZIOA:

Egun horretan aurkeztu zen Itun Herritarra eta mobilizazio zabala, galdera ikur erraldoia osatuz Bilboko kaleetan, herri honek erabaki egin nahi duela aldarrikatzeko, Euskal Herrian ere erabakitzeko prest gaudela ozen esateko. Mobilizazio honen aurretik, Goierriko herrietan pertsonekin osatutako ikurrak irudikatu ziren Bilboko mobilizazio handi horretarako jendea gonbidatuz. Goierriko bozketaren urteurrena ospatzeko ere, egun horiek erabili ditugu, egun handi hartako irudiekin sortutako BIDEAN dokumentala herrietan aurkeztuz.

Udako oporretan atsedena hartu eta indarberritu ondoren Kataluniako prozesuari begira jarri da GED. Hasieran urriaren 1ean aurrera eraman zen bozketa babesteko eta helburu horrekin Goierritik autobusa antolatu zen egun hori bertatik bertara bizi ahal izateko, eta ondoren egun hartan eta ondoren izandako gertakari larriak gaitzesteko asmoz ekimen asko antolatu dira auzo, herri eta hirietan: Goierri manifestazio jendetsu eta plurala egin zen, Bilbon ere mobilizazio erraldoiak an-

tolatu dira, elkarretaratzeak eta kazeroladak han eta hemen, Goierri mailan Giza katea osatu zen Beasain, Lazkao eta Ordizirekin lotuz.

Ekintza horietan jende asko eta ideologia ezberdinetakoa mobilizatu da. **Zeraingo** herria ere ez da atzera geratu eta gogoz parte hartu du antolatutako gaitzespen ekintza guztietan.

Bukatzeko esan behar da, GED-k jende askoren borondate, gogo, indar eta lanari esker egiten duela aurrera hainbat eta hainbat ekintza antolatuz, baina sarritan hori ez da nahikoa, laguntza ekonomikoa ezinbestekoa baita. Horretarako, aurtun Kontseiluarekin batera **Urteberriko Saria** aterata da. Txartelak (Tripontziak) Euskal Herriko taberna eta saltokietan zabaldu dira, 5€-ko balioa dute, zozketa urtarrian 15-ean izango da eta sariak potoloak dira, sari nagusia 60000€-koa. Zerainen Mandio eta Ostatu tabernatan daude salgai, animatu eta eskuratu zure tripontzia!!!

Zeraingo GED taldea
URRIAREN 3A



1988ko idazleen lanak...


1988. urtean argitaratu zen lehenengo Zeraingo urtekaria, harrez gero urtekaria osatzeko lan ezberdinak argitaratu dira urteetan zehar. Urte hauetan, parte hartzaile eta kolaborazio ezberdin asko izan dira urtekaria argitaratu ahal izateko oinarri; helduak, gazteak, umeak, zeraindarrak, kanpotarrak... guzti hauen lanak izan dira urtekarien oinarri.

Aurtengoa 30. urtekaria izatearen aitzakiaz, orain 30 urte bertan parte hartu eta gaur egun Zerainen bizi ez direnei gonbidapen berezia egin diegu aurtengo urtekarian beraien lanen bat aurkezteko eta baten bat animatu da eta hemen bere kolaborazioa.

Eskerrik asko!!!

Duela 30 urte aldizkarian idatzi nuela eta ekimen polita iruditu zitzaidan deitu zidatenean 30. urteurrenko aldizkari hau osatzeko. Ni ez nauzue batere trebea idazten. Baina ekimenak nire aldetik ere esfortzua merezi duelako, hemen nauzue hitzez hitz zentzudun idatzia sortu nahian. Aspaldi da bertan bizi ez naizela baino bertan pasa nituen haurtzaro eta gaztaroa. Bertako herritar asko ezagutzen ditut, askok nire familiari aurrera egiten lagundu zioten. Herri txikietan galtzen da hirietako anonimotasuna, horri lotuta jasotzen da sekulako **elkartasuna**. Eta orain Zeraingo herrian bizitzen ari den zatiketarekin amaitzeko desioak bakarrik ditut, bihotzez. Alde biek ahaztu ditzatela ezberdintasunak, eseri eta onartu dezatela herrian dagoen aniztasuna.

Doinua (ama begira ezazu)
30 urte ta
desadostasuna
Herri txikiek duten
anaitasuna
izan dadila zuen
aberastasuna
Bermatuko duzue
betikotasuna.





Enara Aizpeolea Gereñu



Eneritz Aizpeolea Gereñu

Marimunduko sorgina eta lamien sendagaia

Bazen behin June izeneko neskabila bat 10 urte zituen. Bera Ataungoa zen. Bere gurasoak, anaia eta aitona-amonekin bizi zen baserri batean.

Uda zen eta egunero lagunekin errekarra joaten zen jolastera. Oso gustura ibiltzen ziren jolasean, saltoka. Baina halako batean June salto egin eta min hartu zuen.

-Ondo zaude June?-Galdetu zion Martinek.

-Bai bai ondo nago, lasai-Erantzun zion June.

-Etxera lagunduko dizugu eta zure gurasoei gertatutakoa kontatuko diegu.-Esan zion Ane bere lagun minak.

Lagun guztiak bere bila joan ziren eta etxera lagundu zioten Juneri. Bere gurasoei gertatutakoa kontatu eta lagun guztiak etxera joan ziren.

Hurrengo egunean gurasoak Junerekin medikuarengana joan ziren.

-Egunon, June zer gertatu zaizu?-Galdetu zion medikuak kezkaturik.

June haxe erantzun zion:

-Lagunekin jolasean nenbilen errekan eta halako batean harri batekin irrist egin nuen eta min hartu nuen.

-Bai horixe gertatu zitzaion, guk ez genuen ikusi, lagunekin joan zen errekarra. Baina berak eta bere lagunak hori kontatu ziguten.-Esan zuen Aitorrek, Juneren aitak.

-Ondo da ea zer duzun... Bueno ez da garbi ikusten zer duzun, baina krema hau eman eta ea mina gutxitzen zaizun. Hemendik aste batera ez baldin badizu mina kendu, deitu eta etorri.-Esan zuen medikuak.

Bere amak honela erantzun zion medikuari:

-Baina ez ditu makuluak behar?

-Bai oraintxe makuluak emango dizkizut June. Baina makuluak 2 astetan bakarrik erabili eta gero hasi pixkanaka hanka lurrean jartzen. Tira ba laster arte!-Esan zion medikuak June eta bere gurasoei.

-Bai, mila esker, hurrengora arte- Esan zuen June.

Ospitaletik atera eta etxera joan ziren.

Aste bat igaro zen eta mina zuen oraindik ere June.

Egun batean lagunak bisitan joan zitzaizkion, eta Juneren etxean ibili ziren jolasean.

Handik aste batera mina gero eta handiagoa zuen. Baina ez zekin inork. June ez ziolako inori esan nahi, bestela medikuarengana joan beharko zuelako eta hori ez zuen nahi. Baina aitonari kontatzea erabaki zuen.

-Aitona min handia ematen dit hankak.-Esan zion June aitonari.

-Baina June ez al zenuen esaten hobeto zeneukala?-Erantzun zion aitonak larrituta.

-Bai baina gezurra zen, ez zait medikuarengana joatea gus-tatzen eta horregatik esaten nuen hori.-Erantzun zion bere aitonari.

-June hori ez da egin behar oso gaizki dago! Baina nik bada- kit nork sendatuko zaitun.-Esan zion aitonak nahiko haserre.

-Barkatu aitona. Baina nork sendatuko nauen esan mesedez.- Esan zion June alai.



Lirain Lurrindenda

Garagartza plaza, 1

20240 **Ordizia**

Tel: 943 805 327

San Inazio kalea, 12

20200 **Beasain**

Tel: 943 888 730

San Frantzisko paselekua, 8

20400 **Tolosa**

Tel: 943 650 239

-Marimunduko sorginak eta lamiek. Zatoz nirekin erre kara.-
Erantzun zion aitonak.

-Ondo da! Goazen.-Esan zion Junek poz pozik.

Erreka ondora joan ziren June eta bere aitona. Aitona erre-
kara harriak botatzen hasi zen eta bat batean bi lamia atera
ziren errekatik eta June harriturik geratu zen.

Juneren aitonak bi lamiei gertatutakoa kontatu zien.

-Nire bilobak min hartu du hankan eta Marimunduko sorgi-
nak eta zuek lagunduko al diguzue?-Galdetu zuen aitonak.

-Bai bai noski etor zaitezte gaur gauerdian,hona.-Esan zion
lamia batek.

-Ongi da hemen izango gara, eskerrik asko eta gero arte.-
Esan zuen aitonak poz pozik.

Gau erdia iritsi zen eta June eta bere aitona erre kara joan zi-
ren bi lamiena eta Marimunduko sorginarengana.

Hantxe zeuden bostak elkarrekin, eta hauxe esan zuen Ma-
rimunduko sorginak:

-Tira, ukendu bat egingo dizut hankan hartu duzun mina sen-
datzeko. Baina hori gauerdian eman beharra dago.

-Ondo da, eskerrik asko Marimunduko sorgina.-Esan zuen ai-
tonak.

-Ez joan oraindik, guk sendagai bat egin dizugu, June horrela
lehenago sendatuko zara.-Esan zuen lamia batek.

-Tira ba eskerrik asko, zerbait behar baduzue esan lasai.-
Esan zuten aitonak eta June, irribarrea ahoan zutelarik.

-Bai ez da ezer, lasai lasai. Beste bat arte.-Esan zuten Lamiek
eta Marimunduko sorginak.

Aste betera June ez zuen batere minik eta denak harritu-
rik zeuden. Aitonak eta June familiakoei kontatu zien zer
egin zuten Marimunduko sorginak eta Lamiek lagundu zie-
tela, baina inork ez zuen sinistu. Hala ta guztiz ere oso pozik
zegoen June.

Hurrengo egunean lagunengana joan zen jolastera eta den
dena kontatu zien June. Lagunek sinistu egin zioten eta
arratsalde hartan Marimunduko sorgina eta Lamiak June eta
bere lagunekin ibili ziren jolasean.


Handik aurrera Ataungo jendeak min hartzen bazuen, Ma-
rimunduko sorginarengana eta Lamiengana joaten ziren.

Hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila
Ataungo plazan.

Aizpea Elortza Elortza



Irati Eguren Retolaza



Lur Elortza Altuna

BERTSOAK

Doinua: neska zahar bat tentatzen

Pinipona eskatu det
olentzerotako
nenuko ponpas baita
ponpak botatzeko
playmobil abioia
mikeltxorentzako
oparitxo guztiak
denak neretzako

Hamabietan kanpaia
mahatxa gozoekin
hamabi berde txiki
ahoa betekin
denak mozorrotuta
famiarekin
lehengusutxo guztiak
denak alai pozik

Txokolate marroia
Gabonetan dago
afari handia jan
postre goxorako
azukre asko dauka
nire bururako
lo azkar hartuko det
ondo egoteko

Doinua: puputxi Rapp

klase honetan daude
akats ugari
exeita nagoenean
berak beidatzen dit
mingaina aterata
begi bat itxirik

Uxue Saez de Egilaz



Eskerrik asko

Zerain Dezagun Fundazioari



ZERAINGO UDALA

Eskerrik asko

Zeraingo Udalari



Eskerrik asko

Basarte guraso elkarteari



Eskerrik asko

Liztormendi Elkarteari





Elikadura osasuntsu eta orekatua

Gure baserriko belardietan
betiko eran hazia

Eusko Label egiaztatgia duen
oilasko bakarra

Haragi fin, zaporetsu eta xamurra



Lumagorri S.L.

Zabalegi aldea

20214 ZERAIN (Gipuzkoa)

943 800 100 www.lumagorri.com